



# Ambito de la Administración Local

## Altsasuko Udala

2010eko ekitaldia



CÁMARA DE  
COMPTOS  
DE NAVARRA  
NAFARROAKO  
COMPTOS  
GANBERA

*2012ko apirila*



## Aurkibidea

ORRIALDEA

I.	SARRERA.....	3
II.	HELBURUA .....	7
III.	NORAINOKOA .....	8
IV.	2010eko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA .....	9
IV.1.	Udalaren kontu orokorra, 2010eko ekitaldiari dagokiona.....	9
IV.2.	Legezkotasuna.....	9
IV.3.	Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2010eko abenduaren 31n.....	9
IV.4.	Kontuen Ganberak aurreko txostenetan emandako gomendioak noraino bete diren .....	11
V.	0 ETA 3 URTE BITARTEKOENTZAKO HAUR HEZKUNTZAKO IKASTETXEA ERAKITZEARI BURUZKO ONDORIA.....	13
V.I.	Obren esleipena.....	13
V.2.	Lehen fasean gauzatutako obraren ziurtagiriak jaulkitzea.....	14
V.3.	Hezkuntza Departamentuak diru-laguntzak ematea.....	16
VI.	UDALAREN 2010eko KONTU OROKORRAREN LABURPENA .....	18
VI.1.	2010eko aurrekontua betetzearen egoera.....	18
VI.2	2010eko aurrekontu-emaitza .....	19
VI.3.	Diruzaintzako soberakinaren egoera 2010eko abenduaren 31n.....	19
VI.4.	Egoeraren balantzea 2010eko abenduaren 31n .....	20
VI.5.	2010eko galeren eta irabazien kontua .....	21
VII.	UDALARI ETA HORREN MENDEKO ERAKUNDEEI BURUZKO IRUZKIN, ONDARIO ETA GOMENDIOAK ..	22
VII.1.	Alderdi orokorrak.....	22
VII.2.	Langileria.....	22
VII.3.	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak.....	24
VII.4.	Transferentziak ondoriozko gastuak.....	25
VII.5.	Inbertsioak.....	26
VII.6.	Aurrekontuen diru-sarrerak.....	27
VII.7.	Hirigintza .....	30
VII.8.	Erakunde autonomoak .....	32
VII.9.	"ATABO ALTSASU, S.L." sozietatea.....	35
VIII.	0 ETA 3 URTE BITARTEKOENTZAKO HAUR HEZKUNTZAKO IKASTETXEA ERAKITZEARI BURUZKO IRUZKINAK .....	44
	ALTSASUKO ALKATE OHIAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINKO ALEGAZIOAK.....	55
	KONTUEN GANBERAREN ERANTZUNA, BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTURIKO ALEGAZIOEI.....	61

ERANSKINA: ALTSASUKO UDALAREN URTEKO KONTUEN MEMORIA. 2010eko EKITALDIA





## I. Sarrera


2010eko maiatzaren 3an egindako saioan, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak honako akordio hau onetsi zuen, Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak eskatuta:

*“Nafarroako Kontuen Gamberari eskatzea fiskalizazio-txosten bat egin dezan Altsasuko Udalak 0 eta 3 urte bitartekoentzako Altsasuko ikastetxea eraikitzeko aurrekontuak betearazteko expedientean izandako jardunaren gainean, aipatu udal horrek irregularitasunik egin ote duen argitzeko, Udalean berean Ikerketa Batzordeak egindako lanean hori ondorioztatu baita”.*

Parlamentuaren eskaria kontratazio-espediente zehatz baten fiskalizazioari buruzkoa bada ere, gure lanak, batetik, Udalaren 2010eko kontu orokorrak aztertu ditu, eta, bestetik, expediente hori aztertu du, edozein izanda ere bere denbora-esparruan.

Altsasuko udalerriak 26,8 km<sup>2</sup>-ko azalera du, eta 7.698 biztanle zituen 2010eko urtarrilaren 1ean.

Ondoko grafiko horretan erakusten da Udalaren eta horren mendeko organo-en osaketa:



2010eko ekitaldiaren itxieran honako hauek dira entitate horien datu ekonomiko nagusiak:

- Sektore Publiko Administratiboa, Udalak berak eta bere bi erakunde autono-moeik osatutakoa (Udalaren Musika Eskola eta Aita Barandiaran Zaharren Egoitza); hona hemen horien datuak 2010ean:





ALTSASUKO UDALARI BURUZKO FISKALIZAZIO TXOSTENA - 2010eko EKITALDIA

Entitatea	Aitortutako betebeharrok	Aitortutako eskubideak	Langileak 2010-12-31n
Udala	7.702.354	7.707.149	77
Udalaren Musika Eskola	289.842	290.074	14
Aita Barandiaran Zaharren Egoitza	926.686	926.686	21
<b>Guztira</b>	<b>8.918.882</b>	<b>8.923.909</b>	<b>112</b>

Honako hau da Udalak bere erakunde autonomoei egindako ekarpenea 2010ean: 164.621 euro Musika Eskolari eta 206.375 euro Zaharren Egoitzari.

• Sektore Publiko Enpresariala. Udalak Atabo Altsasu SL enpresa eratzen du 2009ko abenduan 3.300 euroko kapital batekin (%100 Udalarena). Hasieran bere gain hartzen du kirol-instalazioen kudeaketa. 2010ean, jardueraren lehen urtean, ondorengo datu ekonomikoak eskaintzen ditu:

Enpresa publikoa	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiaren emaitzak	Batez besteko langileria 2010ean
Atabo Altsasu SL	631.172	663.285	-32.113	13,5

Udala, gainera, honako erakunde hauen barnean dago:

- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea: Harrera eta Orientabide Sozialerako Programa, Autonomia Pertsonala Sustatu eta Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonei Arreta, Haurrei eta Familiei Arreta eta Gizarte Lan Babestua.
- Sakanako Mankomunitatea: Zaborren bilketa, uraren goi-hornidura, etxebizi-ten zaharberritzea, euskara, immigrazioa eta kirola eta turismoa.

Guztira, mankomunitateen bidez kudeatutako zerbitzu horiek honako gastu hau ekarri diote Udalari:

Zerbitzuak	2010ean Udalak izandako gastuak
Oin. Giz. Zr. Mankomunitatea	174.525
Sakanako Mankomunitatea	500.028

Laburbilduz, ondoko taulan ageri dira ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta horiek emateko modua:






ZERBITZUA	Udala	EEAA	Mankomunitatea	Zerbitzuetarako kontratuak.	Udal sozietatea
Zerbitzu administratibo orokorrak	X				
Musika Eskola		X			
Zaharren Egoitza		X			
Gizarte Zerbitzuak			X		
Hilerria				X	
Hirigintza	X				
0-3 bitarteko Haur ikastetxea	X				
Kultura Etxea	X				
Gazteria	X				
Berdintasuna	X				
Kirolak	X		X		
Kirol-instalazioen kudeaketa					X
Liburutegia	X				
Ludoteka	X				
Kontsumitzailarentzako informazioa				X	
Euskara		X			
Turismo eta immigrazioa		X			
Etxebizitzak eta eraikinak zaharbeerritzeko bulegoa			X		
Uraren goi-homidura			X		
Uraren behe-homidura	X				
Hiri-hondakinak			X		
Kaleak garbitzea	X				

Toki Entitateari 2010eko ekitaldian zehar aplikatzeko zitzaison araubide juridikoa, funtsean, honako hau izan da:

- 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa
- 2/1995 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.
- 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzeari buruzkoa.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileriaren Estatutuari buruzkoa.
- 11/2004 Foru Legea, Nafarroako Toki Araubidea gaurkotzeari buruzkoa
- 6/2006 Foru Legea, Kontratu Publikoei buruzkoa, 1/2007 Foru Legeak toki entitateei buruz ezarritako berezitasunekin.
- 12/2010 Foru Legea, ekainaren 11ko, Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitatean moldatzen dituena.





- 38/2003 Legea, Diru-laguntzei buruzkoa.
- 35/2002 Foru Legea, Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzkoa.
- 13/2009 Errege Lege Dekretua, urriaren 26koan, Enplegurako eta tokiko iraungarritasunerako estatuko funtsa sortu zuena.
- 15/2010 Legea, uztailaren 5ekoa, merkataritza eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoa.
  - Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, 1998ko irailaren 21eko 270., 271. eta 272. Foru Dekretuak dira araubide juridikoa ezartzen dutenak; horiek guztiak Nafarroako Toki Administratziorako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu egiturari eta kontabilitateari buruzkoak dira.
  - Altsasuko Udalaren 2010eko aurrekontua betearazteko oinarriak eta udal horren gainerako barne-araudiak.

Honako hauek guztiekin arautzen dute “Atabo Altsasu SL” sozietate publikoa: toki araubidearen araudi orokorra; eta merkataritza arloan indarrean dagoen araudia, bereziki, Merkataritzako Kodea, Kapitaleko Sozietateen Legea eta Empresa txiki eta ertainen kontabilitate plan orokorra.

Txostena zortzi epigrafetan egituratzen da, sarrera hau barne. Bigarren epigrafean txostenaren helburuak erakusten ditugu, eta, hirugarrenean, egindako lana noraino iritsi den. Laugarrenean, 2010eko kontu orokorrari buruz dugun iritzia, eta, bosgarrenean, 0-3 urte bitartekoentzako hezkuntza ikastetxeari buruzko ondorioa. Seigarrenean, Udalaren egoera finantzario nagusiei buruzko laburpen bat. Zazpigarrenean, arloen araberako iruzkinak, ondorioak eta gomendioak sartzen ditugu, udalaren antolamendua eta barne kontrola hobetzeko egoki jotzen ditugunak. Halaber, bere erakunde autonomoen eta “Atabo Altsasu, S.L.” sozietatearen kontuei buruzko aipamen batzuk ere badira bertan. Azkenik, zortzigarren epigrafean, 0 eta 3 urte bitartekoentzako hezkuntza ikastetxearen berrikuspenetik eratorritako alderdi nagusiak nabamentzen ditugu.

Gainera, eranskin bat ere ageri da, Udalak 2010eko ekitaldiko kontuen gainean egindako memoriari buruzkoa.

Bertan egindako lana 2011ko urritik abendura bitartean egin du hiru auditoretza-teknikariz eta auditore batez osaturiko talde batek. Halaber, talde horrek Kontuen Ganberaren zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntza izan du.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Altsasuko Udaleko langileei, baita bere erakunde autonomoetako eta udal-enpresako langileei ere, lan hau egitean eskaintako laguntzarengatik.





## II. Helburua

Parlamentuaren eskaera aintzat hartuz, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Altsasuko Udalaren 2010eko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin dugu, baita 0-3 urte bitarteko-entzako hezkuntza ikastetxearen eraikuntza-espedientearen berrikuspena ere.

Gure txostenaren helburua da honako hauei buruz dugun iritzia/ondorioa agertzea:

a) 2010eko Kontu orokorra

- Ea Altsasuko Udalaren 2010eko ekitaldiko kontu orokorrak behar bezala islatzen duen, alderdi garrantzitsu guztieta, 2010eko abenduaren 31ko ondarearen, gastu eta diru-sarreren aurrekontuaren likidazioaren, eta finantza-egoeraren irudi zehatza, bai eta data horretan bukatutako urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzak ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruarekin bat, eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate-printzipio eta irizpideekin bat.
- 2010ean garatutako jarduerari aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila.
- Udalaren egoera finantzarioa 2010eko abenduaren 31n.
- Ganbera honek 2007ko ekitaldiari zegokion fiskalizazio-txostenean eman zituen gomendioen aplikatze-maila.

b) 0 eta 3 urte bitartekoentzako Haur Hezkuntzako ikastetxearen eraikuntza

- Obra hori esleitzeko eta gauzatzeko espedienteak arautzen dituen araudiaren betetze-maila.

Egokitzat jotzen diren gomendioak gehitu zaizkio txostenari, udalak eta horren mende dauden erakundeek hobetu edo/eta osatu ditzaten bertan ezarritako sistematikoa –barne-kontroleko sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak–.





### III. Norainokoa

2010eko ekitaldiari dagokion Altsasuko Udalaren kontu orokorrak honako elementu nagusi hauek hartzen ditu barne:

- Entitatearen beraren eta bere erakunde autonomoen kontuak: Aurrekontuaren likidazio-egoera, ekitaldiaren aurrekontu-emaitza, diruzaintzako soberakinak, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.

- Atabo Altsasu SL sozietatearen urteko kontuak.

- Kontu orokorraren eranskinak: zorraren memoria eta egoera.

Ez dira aurkezten Udalak bere erakunde autonomoekin eta guztiz udalarena den sozietatearekin dituen egoera bateratuak.


Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipio eta arau-ekin bat, eta azterlanaren inguruabarren eta helburuen arabera beharrezkotzat jo-tako hautaproba edo prozedura tekniko guztiak egin dira. Besteak beste, laginen teknika, edo kontu-sail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoak erabili da prozedura horien barnean.

Zehazki, Udalari eta bere erakunde autonomoei dagokienez, aurrekontuen eta finantzaren egoera-orrien edukia eta koherenzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarritzko prozedura administratiboak ere. Halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontroleko alderdi nabarmenenak ere ebaluatu dira.

Atabo Altsasu SL sozietatearen 2010eko urteko kontuei dagokienez, bi alderdi landu dira nagusiki: batetik, urteko kontuak berrikusi dira, eta, bestetik, Tokiko Sektore Publikoaren entitatea den aldetik, bere jarduera aplikatzekoak zaizkion legezko printzipioei lotuta ote zegoen ere aztertu da.

0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako ikastetxearen eraikuntzari dagokionez, obrak esleitzeko espedienteak berrikusi dira, bai eta obren gauzatzea eta jasotako dirulaguntzak ziurtatzeko eta justifikatzeko prozesua ere. Berrikuspen horrek 2009tik 2011ra doan aldia hartu du barne.





## IV. 2010eko Kontu orokorrari buruzko iritzia

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, 2010eko ekitaldiari dagokion Altsasuko Udalaren kontu orokorra aztertu dugu, Udalaren beraren erantzukizuna baita kontu horren prestaketa eta edukia. Txosten honen V. atalean laburbiltzen da hori.

Honako iritzi hau ondorioztatu dugu azterketa-lana egin eta gero:

### IV.1. Udalaren kontu orokorra, 2010eko ekitaldiari dagokiona

- Udalaren ondasunen inventarioa 1989koa da, eta eguneratu gabe dago; hartara, ezinezkoa izan da udalaren ibilgetuaren kontabilitate-saldoa zentzuzkoa ote den egiaztatzea. Erakunde autonomoek ez dute inventariorik.

Arestian aipaturiko salbuespenaren ondorioak alde batera utzita, 2010eko ekitaldiari dagozkion Udalaren kontu orokorrik behar bezala islatzen ditu, alderdi nagusi guztiak honako hauek guztiak: gastuen eta diru-sarreren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera, eta bere eragiketen emaitzak. Halaber, behar adina informazio biltzen du hura egoki interpretatu eta ulertzeko, aplikatzeko den informazio finantzario publikoko arau-esparruarekin bat, eta, bereziki, harten bildzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideekin bat.

### IV.2. Legezkotasuna

Egindako lanaren norainokoarekin bat, Udalaren jardun ekonomiko-finantzarioa, orokorrean, legezkotasun-printzipioarekin bat garatu da.

### IV.3. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2010eko abenduaren 31n

Udalaren hasierako aurrekontuak, 2010eko uztailean onartuta, 7,5 milioiko gastuak eta diru-sarrerak aurkezten ditu; zenbateko hori %123 aldatzen da aurrekontu-aldaketan bitarte, hau da, 9,2 milioi; beraz, behin betiko hornidurak 16,6 milioikoak dira. Handitze horiek, gastuen kasuan, inbertsioen kapituluarengatik justifikatzen dira (2 milioi izatetik 11 milioi izatera igarotzen baita), eta, diru-sarreren arloan, kapital-transferentziengatik, baita aurreko ekitaldiko diruzaintzako soberakinak aplikatzeagatik ere.

Aitortutako betebeharra 7,7 milioi dira, %46ko gauzatze-maila dutela. Inbertsioen kapituluaren gauzatze eskasean justifikatzen da gastu hori, %22koa baita; hau da, hasierako behin betiko hornidurak 11 milioikoak baziren ere, soilik 2,5 milioiko balioa duten inbertsioak egin dira.

Aitortutako eskubideek 7,7 milioi osatzen dute, %46ko betetze-maila dutela; portzentaje hori justifikatzen da, funtsean, kapital-transferentziengatik izandako diru-sarreren betetze eskasean, %21ekoak izan baita.

Izaerari erreparatuta, gastu arruntak eta inbertsioak gastuen %66 eta %32 dira, hurrenez hurren. Diru-sarrera arruntak kopuru osoaren %74 dira; diru-sarreren %60 jasotako transferentziengatik datozeren (%34 arruntetatik eta %26 kapitaletik).





Laburbilduz, Udalak gastatutako 100 euroko kopuru bakoitza honela bideratu eta finantzatu da:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantzazio-iturria	Zenbatekoa
Langileak	31	Tributo bidezko diru-sarrerak	38
Bestelako gasto arruntak	34	Transferentziak	60
Inbertsioak	32	Ondare bidezko diru-sarrerak	2
Finantza-karga	3		
<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>Guztira</b>	<b>100</b>

Udalak 2010. urterako egindako aurrekontuaren betetzeak, 2009koarekin alderatuz gero, honako datu ekonomiko hauek adierazten ditu:

	2009	2010
Aitortutako betebeharra	10.707.126	7.702.354
Eskubide likidatuak	10.653.167	7.707.149
% gastuen betetzea	49	46
% diru-sarreren betetze-maila	37	46
Gastu arruntak	5.313.979	5.072.075
Funtzionamendu-gastuak	5.238.161	5.015.488
Kapitalaren eta finantza-eragiketen gastuak	5.393.146	2.630.279
Diru-sarrera arruntak	5.668.559	5.675.607
Kapitalaren eta finantza-eragiketen diru-sarrerak	4.984.608	2.031.542
% Diru-laguntzekiko mendekotasuna	63	60
Aurrekontu-emaitza doitua	138.313	429.059
Aurrezki gordina	430.399	660.119
Finantza-karga	214.807	219.848
Aurrezki garbia	215.592	440.271
% Zorpetze-maila	4	4
% Zorpetze-muga	8	12
% Zorpetze-ahalmena	4	8
Diruzaintzako soberakina, guztira	1.430.862	1.133.932
Diruzaintzako soberakina gasto orokorrean	13.294	239.067
Zor bizia	2.878.099	2.714.838
% Diru-sarrera arrunten gaineko zor bizia	51	48
Zor bizia biztanleko	378	353

2010ean, Udalak aurreko ekitaldian baino gastu eta diru-sarrera gutxiago izan ditu (-%28). Beherakada justifikatzen da, funtsean eta gastuei dagokienez, inbertsioen murrizketan (5,3 milioikoak izatetik 2,5 milioikoak izatera igaro dira), hau da, %53 txikiagoak; diru-sarrerei dagokienez, kapital-transferentziak %51 murritztu direlako (4,2 milioi izatetik 2 milioi izatera igarota).

Gastu eta diru-sarreren betetze-maila urri samarra izan da bi ekitaldietan, inbertsioei lotutako eragiketak egin ez direlako.





Izaera arruneko gastuak ehuneko bost murritzut dira; diru-sarrera arruntak, al-diz, antzeko zenbateko batean mantentzen dira. Gastu arruntak murritzut dira, bai langileen gastuak %3 murritzut direlako, bai gastuen gaineko euste-politika bat aplikatu delako.

Aurrekontu-emaitza doitua 0,43 milioikoa da; aurreko urtean 0,14 milioikoa izan zen.

2010ean, bai aurrezki gordina, bai aurrezki garbia, aurreko urtekoak baino nabarmen hobeak izan dira.

Zorpetze-maila %4koa da, %12ko muga egonda; ondorioz, diru-sarrera arrunten %8ko zorpetze berria hartzeko ahalmen ekonomikoa du.

Diruzaintzako soberakina, guztira, %21 murrizten da 2010ean 2009. urtekoarekin alderatuz gero, eta 1,1 milioiko zifrara iristen da: gastu orokorretara bideratutakoa 0,2 milioikoa da, 2009ko balioa hobetuta.

Epe luzerako zorra 2,7 milioikoa da, hau da, %6 murritzut da 2009koarekin alderatuz gero. Zor hori (353 euro biztanle bakoitzeko) entitatearen diru-sarrera arrunt guztien %48 da; beraz, gaur egun zorpetze berria hartzea mugatzen duen %75eko legezko gehieneko mugaren azpitik dago.

Honako hau adierazi nahi dugu Udalaren bi patronatuen finantza-egoerari buruz:

a) Zaharren egoitza

2010ean, 0,93 milioiko gastuak eta diru-sarrerak aurkeztu ditu; beren sailkapen ekonomikoari erreparatuta, izaera arrunekoak dira gastu eta diru-sarrera horiek. Ekitaldiaren aurrekontu-emaitzan 680 euroko emaitza positiboa izan da; diruzaintzako soberakina osoan eta gastu orokorretarakoan, halaber, 25.681 euroko emaitza positiboa izan da. Ez du epe luzerako zorrik. 0,2 milioikoa izan da Udalak bere finantzazioari egindako ekarprena.

b) Musika Eskola.

Gastu eta diru-sarrerak, guztira, 0,29 milioikoak izan dira; gastu horien %99 eta diru-sarreren %100 izaera arrunekoak dira. Ekitaldiaren aurrekontu-emaitza doitua 232 eurokoa izan da; diruzaintzako soberakina osoa eta gastu orokorretarakoa, zero eurokoa izan da. Ez du epe luzerako zorrik. Udaletik 0,16 milioiko ekarprena jaso du finantzatzeko.

#### IV.4. Kontuen Ganberak aurreko txostenetan emandako gomendioak noraino bete diren

Ganbera honek 2007ko ekitaldiaz egindako aurreko txostenari erreparatuta (2009ko maiatzean argitaratu zen hori), egiteke daude oraindik, txosten honetako VII. atalean aipatzen den bezala, honako *gomendio* garrantzitsu hauek:

- *Indarrean dagoen legerian aurrekontua onesteko ezarritako epeak betetzea.*
- *Udalaren eta bere mendeko entitateen finantza-egoera bateratuak eratzea.*





- 1989ko *udal-inventarioa eguneraetzea, alten eta bajen gaineko kontrola eta jarraipena egiteko sistema ezarrita.*
- *Udalak bere erakunde autonomoen jarduketen gainean egin beharreko kontrola, kontu-hartza eta tutoretza behar bezala ziurtatzen dituzten prozedurak diseinatzea.*
- *Planeamendu-arauak Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeko espezifikazioetara egokitzea.*
- *Lurzoruaren udal ondarea udalaren gainerako ondasunetatik bereizita era-tzea eta kudeatzea.*

**Ondorioz, eta bukaerako laburpen gisa**, Altsasuko Udalaren finantza-egoeraren ezaugarria da gastu arruntei modu kontrolatuan eustea eta murrizketa handia izatea inbertsio-gastuetan. Diru-sarreren arloan nabamentzen dugu jokaera ona dagoela zuzeneko zergetan, eta, bestalde, murrizketa handia dagoela, bai eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergan, bai kapitalaren diru-sarreretan.

Aurrekontuen mutua nagusiak hobetu dira aurreko ekitaldiarekin alderatuz gero, eta arrazoizkoak dira zorpetze-mailaren eta zor biziaren bolumenak.

Kudeaketaren ikuspegitik, premiazkoa da Udalak erabaki egokiak hartza bertan behera gelditutako hirigintza-garapenen gainean. Halaber, uste dugu aztertu behar dela egokia ote den kirol-instalazioen gainean gaur egun dagoen kudeaketa (udal sozietateari egindako mandatuaren formula bidezkoa).

Hurbileko etorkizunean arazoak izan litezke finantza arloan krisi ekonomikoaren ondorioz, bai eta gaur egun Nafarroako udalerrien artean banatzekoak diren transfferentzien bolumenaren inguruaren dagoen ziurgabetasunaren ondorioz ere (bere diru-sarreren %60 iturri horretatik dator). Hartara, eta epe ertainean bere bideragarritasun ekonomikoa ziurtatze aldera, beharrezko da Udalak neurri multzo bat aplikatzen jarraitzea, bai gastu arruntei eusteko, bai ohiko baliabideak sortzeko ahalmena handitzeko. Hori guztia ahaztu gabe kudeaketa hobetzeko neurriak sartu behar direla, besteak beste, honako alderdi hauetan: tarifak eta prezioak zerbitzuarren kostura egokitzea, inbertsioak lehenestea, diru-laguntzen politika berrikustea, zerbitzu jakin batzuen dimentsionatzea aztertzea, eta ematen diren baina derrigorrezkoak ez diren zerbitzuen autofinantzazioa.





## V. 0 eta 3 urte bitartekoentzako Haur Hezkuntzako ikastetxea eraikitzeari buruzko ondorioa

Gure esku jarritako dokumentazioaren gainean egindako berrikuspenari dagokionez, honako alderdi hauek nabarmenzen ditugu:

### V.I. Obren esleipena

- 2008ko abenduan, Udalaren Osoko Bilkurak 0 eta 3 urte bitartekoentzako hezkuntza ikastetxe bat eraikitzea proiektua onesten du, bazegoen eraikin baten zati bat egokitutako handitzearen bidez.
- Obra horien aurreikusitako kostua 1.627.169 eurokoa da (BEZA barne), eta honako hauek dira bere finantzazio-aurreikuspenak.

Finantzazio-iturria	Zenbatekoa
Hezkuntza Departamentuaren diru-laguntza	812.260
Toki Adm. Departamentua- libreki erab. funts. diru-laguntza	252.520
Cederna-Garalur diru-laguntza. Landa Garapeneko Programa	60.000
2009ko inbertsioen maileguak	502.389
<b>Guztira</b>	<b>1.627.169</b>

• Aurreko obretarako hautaketa-prozesua 2009ko irailaren 29an hasten da, pleguak onetsita; plegu horiek ezartzen dute, esleitzeko prozedura gisa, Europar Batasuneko atalasetik beherako prozedura irekia, eta lizitazioaren zenbatekoa 1.402.732 eurotan finkatzen dute, BEZA kanpo. Guztira, 29 eskaintza aurkezten dira prozesu horretara.

• 2009ko urriaren 27an abantaila onenak dituen eskaintzari esleitzen zaio, arestiko plegu horietan ezarritako irizpideak aplikatu eta gero. Esleipenaren zenbatekoa 1.061.189 eurokoa da (BEZA kanpo) -%24ko beherakada izanda-, eta 6,4 hileko epea zehazten da lana gauzatzeko.

• Urriaren 29an formalizatzen da kontratua esleipendunarekin, eta egun berean sinatzen da, baita ere, zuinketa-akta.


• Zenbait gorabehera tarteko, obrak azaroaren 16an hasten dira benetan, eta ez aurreikusitako datan, hau da, urriaren 29an.

• 2010eko martxoan, esleipendun hori legezko moduan sartzen da hartzekodunen konkurtso voluntario batean. Udalak esleipendunari eta konkurtso-administrazioari konpromiso bat eskatzen die, obrak gauzatzen jarraituko direla ziurtatzeko.

• Inolako erantzunik ez denez, 2010eko maiatzean kontratua indargabetzen da kontratatutako obra bukatu gabe, kontratistaren isileko atzera egiteari buruzko arrazoia aplikatuta.

• 2011ko abuztuaren 22an, zuzendaritza fakultatiboak aurrekontu bat aurkezten du, 2011. urtea bukatu bitartean egitekoak diren obren gaineakoa: obren bigarren





fasea esaten zaio horri. Horien kuantifikazioa egiteko, aintzat hartzen da diru-laguntza jaso ahal izateko urtea bukatu baino lehen Hezkuntza Departamentuari justifikatu behar zaion obraren munta minimoa. Iraila eta abendua bitartean gauzatu daitezkeen obra zehatzak azaltzen dira zehatz-mehatz, 156.279 euroko balorazioa dutenak (BEZA kanpo); obra horiek, funtsean, honako alderdi hauek hartzen zituzten barne: itxiturak, instalazioak eta obra geldirik egoteagatik honda daitezkeen unitateak bukatzea.

- 2011ko abuztuaren 26an onetsi ziren 0 eta 3 urte bitartekoentzako Haur Hezkuntzako ikastetxearen obren 2. fasea arautzeko pleguak; halaber, publizitaterik gabeko prozedura negoziatua abiatzen da eta eskaintzak eskatu zitzazkiien hiru enpresari. Arrestiko gonbidapen horri enpresa bakar batek ere erantzun zion, eta 2011ko irailean bigarren fase horren obrak esleitzentzira 156.271eko zenbatekoarekin (BEZA kanpo).

**Ondorioz**, obrak esleitzeko faseetan eta kontratua indargabetzean ikusten da, oro har, aplikatzekoa den araudia bete dela.

## V.2. Lehen fasean gauzatutako obraren ziurtagiriak jaulkitzea.

- 2009ko abenduaren 1ean, esleipendunak lehen ziurtagiria aurkezten du, 33.626 euroko zenbatekooa, BEZA kanpo. Kontratistak, obrako zuzendaritzak eta jabetzak sinatuta dago ziurtagiri hori, eta Hirigintzaren (obra gauzatzeari buruz) zein Kontu-hartzearen (urrekontu-sailari buruz) udal zerbitzuen txostenak ditu. Alkatearen ebazpenaren bidez onesten da (1421/2009 zenbakia, abenduaren 17koa) eta 2010eko urtarrilean ordaindu.

- Hezkuntza Departamentuak diru-laguntza bat emateko exijitzen duen gastu justifikagarriaren zenbateko minimora iriste aldera, Udalaren eta enpresa eraikitzai-learen arteko zenbait mezu elektroniko ageri dira dokumentazioan, eta horietan adierazten da 2. ziurtagiri horrek 206.000 euroren gainekoa izan behar duela, BEZA barne. Horretarako, horretan zenbait pilaketa eta abendu osoan zehar egitekoak diren obren aurreikuspena sartu behar da.

- 2009ko abenduaren 11n, esleipendunak 2. ziurtagiri hori aurkezten du; zenbatetako 179.895 eurokoa da, BEZA kanpo, edo 208.678koa, BEZA barne. Ziurtagiri hori, halaber, enpresak berak, zuzendaritza fakultatiboak eta jabeak sinatuta dago, eta 1. ziurtagirian bezala, Hirigintzaren zein Kontu-hartzearen udal zerbitzuen txostenak ere baditu.

Alkatearen ebazpenaren bidez onesten da ziurtagiri hori abenduaren 17an, aldez aurretik Hirigintzako Batzordeak aldeko adostasuna emanda.

- 2010eko urtarria eta otsaila bitartean, zuzendaritza fakultatiboak zenbait informazio ematen ditu: obra gauzatzeko zailtasun teknikoak daudela, pilaketak desagertu direla, eta esleipenduna hartzekodunen konkurtso boluntario batean sartu dela. Halaber, nabarmentzen du bigarren ziurtagiri hori ez dagokiola 2009ko bukaeran benetan gauzatua dagoen obrari.

- Horri buruzko informazioa helarazten zaie Hezkuntza eta Toki Administrazioko Departamentuei, egoki jotzen dituzten jarduketak egin ditzaten.





• Udalaren Kontu-hartzearen Departamentutik adierazten da 2. ziurtagiria ordaindu gabe egongo dela obraren gauzatze erreala eta egoera baloratzan dituen txosten bat egon arte.

• Udalean obra horien auzia argitzeko batzorde berezi bat eratzen da, eta sei saio egin eta gero, akordio bat lortzen du Osoko Bilkurak 2010eko apirilean; horretan, bestekarriko beste, honako hau esaten da: *“alkate jaunak baiezatzen du bera zela Hirigintza Batzordeko pertsona bakarra ziurtagiri hori errealtitatearekin bat ez zetorrela bazezkiena. Alkateak, halaber, baiezatzen du batzorde horretan ziur zegoela, nahiz eta aktan dagoenaren arabera ez zuen argi eta garbi adierazi, ziurtagiriarena lortuko zela abenduaren bukaeran eta materialen pilaketarekin... Alkateak barkamena eskatu zien Udaleko zinegotziei, 2010eko martxoaren 12ko aktan ageri denez, auzi horretako informazio eta kudeaketagatik. Era berean, gaiak gaindituta sentitu zela aitortzen du, baita egindako okerra ere. Modu berean, dio langile teknikariei ere barkamena eskatu diela”*.

• Udalak ziurtagiria berrikusteko prozesua abiarazten du, eta aztertutako dokumentazioan, guztira, 2009ko abendua arte benetan gauzatutako obrari buruzko zifra desberdinak dituzten hiru txosten ageri dira. Honako hauek, zehatz-mehatz:

2. ziurtagiriaren zuzenketa	Data	Zuzendutako zenbatekoa (BEZA kanpo)
Zuzendaritza fakultatiboa	2010eko urtarrilaren 27a	92.220
Hirigintzako udal zerbitzuak	2010eko otsailaren 11	86.316
Zuzendaritza fakultatiboa	2011ko uztailaren 13a	46.175

Zenbateko horiek desberdinak izatea, funtsean, materialen pilaketak kontuan hartzearen edo ez hartzearen ondorioa da. Nolanahi ere, azken txostenekoa jotzen da ziurtagiriaren zenbateko zuzentzat.

• Jatorrizko bigarren ziurtagiria baliogabetzen da administratiboki, eta egundaino, ez da inolako akordiorik egin zuzendutakoaren administrazio- eta aurrekontu-tramitazioari buruz. Era berean, esleipendunak ezin duenez hori sinatu, ezta dagokion faktura jaulki ere, Udalak adosten du ez sartzea Hezkuntza Departamenduari diru-laguntza kobratzeko aurkeztu beharreko justifikazioan.

• Bi ziurtagiri horiek finantza-entitate baten alde emanda ditu esleipendunak, eta Udalak kreditu-lagatze hori bereganatzen du; lehenbiziko ziurtagiria gorabeherarik gabe ordaintzen da. Bigarrenari dagokionez, eta Udalak ez duenez ordaindu, finantza-entitateak epaitegietan salatzen du ziurtagiriaren aurreko baliogabetzea; Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak finantza-entitatearen aurkako epaia ematen du, baina horrek apelazio-errekursoa aurkezten du epai horren aurka.

Azken batean, diru-laguntza bat galtzeko aukera ikusita, benetan gauzatutako obra baino gehiago ziurtatzen da Hezkuntza Departamentuak exijitzen duen gastu justifikatuaren bolumena lortzeko. Gure iritziz, jokamolde hori legezko eta kudeaketa oneko printzipioen aurkakoa da, eta horiek nagusitu behar dute administrazio publiko guztien jarduketetan.

Ziur asko, esleipenduna sartu izan ez balitz hartzekodunen konkurtsoan eta kontratuari uko izan ez balio, aurreko kuantifikazioa konpondu egingo zen ondorengo ziurtagirietan egokitzapenak eginez.





Ziurtagiri hori ordaindu ez bazen ere, Udalaren aurkako kontingentzia gerta dai-teke bigarren ziurtagiri hori baliogabetzearen aurka finantza-entitateak jarritako apelazio-errekurtsotik eratorrita.

### V.3. Hezkuntza Departamentuak diru-laguntzak ematea

- Obraren bideragarritasun finantzarioak, Udalak emandako ekarpenez gainera, Nafarroako Gobernuak emandako diru-laguntzak ere behar ditu.
- 2008an, Hezkuntza Departamentuak 203.065 euroko diru-laguntza eman zion Udalari obra horiek finantzatzeko; Udalak uko egin behar izan zion diru-laguntzari, obrak oraindik ez zeudelako ezta esleituta ere.
- 2009ko aurrekontuaren kargura Hezkuntza Departamentuak emandako diru-laguntzak –eta aurreko urteko zenbateko berberarekin– bete beharreko bi baldintza ezartzen zituen: obrak 2009ko azaroaren 1a baino lehen hastea, eta diruz laguntzkoa zen aurrekontuaren %25eko edo gehiagoko gastuaren justifikazioa aurkeztea 2009. urtea bukatu aurretik.
- Ez dira bete bi baldintza horiek; batetik, obrak ez direlako hasi azaroaren 16a arte, eta, bestetik, ezinezkoa delako (auzia argitzeko batzordean gerora aipatu zen bezala) diruz laguntzehoa den aurrekontuaren %25 ziurtagirietan justifikatuta ego-tea 2009ko abenduaren bukaeran.
- Nolanahi ere, eta azken baldintza hori betetzeko asmoz, –eta Udalaren, zuzen-daritza fakultatiboaren eta esleipendunaren arteko negoziazio batzuk izanda– bigarren ziurtagiri bat egiten da. Horretan 2009ko abenduaren 11 arte benetan gauzatutako obra, gehi material-pilaketen eta abendu osoan egiteko den lanaren aurrekuspenak ageri dira. Horri esker, %25 hori lortzen da teorikoki.
- Udalak bigarren ziurtagiri hori tramitatuta eta onetsita, Hezkuntza Departamentura bidaltzen da, beste dokumentu batzuekin batera. Abenduaren 30ean, Departamentuak onesten du dagokion diru-laguntza ordaintzea; 2009. urterako, 203.065 euro ziren.
- 2010eko otsailean, Udalak jakinarazten dio Departamentuari bigarren ziurtagiran ageri den obraren zenbatekoa ez dagokiola benetan egindako obrari. 2010eko apirilean, Departamentuak diru-laguntza itzultzeko prozedura abiarazten du, eta Udalak urte bereko ekainean ordaintzen du.
- 2010eko aurrekontuen kargura, Departamentuak berriz ere onartzen dio diru-laguntza bat Udalari, zenbateko berberarekin, obra horiek finantzatzeko. Udalak esleipendunarekin duen kontratua ekainaren amaieran baliogabetzen duenez, eta obrak beriz esleitu gabe daudenez, bertan behera gelditzen da diru-laguntza hori.
- 2011n, Departamentuak berriz ere onartzen dio diru-laguntza berbera, ia-ia 2009ko baldintza berberekin. 2011ko abenduaren 22an, Udalak gauzatutako obretan izandako gastuen multzoa bidaltzen dio Departamentuari, ia-ia 300.000 eurokoa dena.

**Ondorioz**, diruz laguntzehoa zen obra horren aurrekontuaren %25 finantzatzeak, guztira, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren diru-laguntzak jasotzeko lau txosten behar izan ditu, lau ekitaldi desberdinatan, eta, gainera, diru-





laguntza itzultzeko espediente bat ere bai. Honako hauek izan dira horren arra-zoiak: lanak egiteko planifikazio desegokia, eta kontratu bat baliogabetzeak berez dakarren arazo edo eragin berezia.

Azken batean, eta **bukaerako ondorio gisa**, 2008ko bukaeran proiektatzen den obra bat (bolumen fisiko eta ekonomiko handirik gabea, bai eta exijentzia tekniko eta estetiko berezirik gabea ere) gaur egun oraindik egina ez egoteak argi salatzen du bere programazioan, kudeaketan eta eraginkortasunean zorroztasun falta izan dela, eta printzipio horiek exijitzeko modukoak direla administrazio publiko guzietan; gainera, ez dira ahaztu behar obra hori tramitatzeko eta sortutako gorabeherak konpontzeko behar izan den giza baliabideen lana eta ahalegina.

Enpresa esleipendunak hartzekodunen konkurtso boluntarioa adieraztea izan zen, ziur aski, ziurtagiri okerrak zeudela azaleratzeko aukera eman zuen pizgarria, nahiz eta implikatutako estamentu guztiengandik oniritzia jasota zeuden. Alderdi hori, denbora- eta finantza-planifikazio eskasa, eta diru-laguntza justifikatzeko epe zorro-tza aintzat hartuta, azaldu daiteke, baina ez justifikatu, berrikusitako udal-jarduera.

Bestalde, uste dugu Udalak neurri zehatzak hartu behar dituela ikastetxe hori behin betiko bukatzeko; izan ere, orain arte 350.000 inbertitu ditu horretan, gutxi gorabehera. Dena dela, komenigarria da zehaztea zerbitzu publikoa ematen ari dela behin-behineko modulu-instalazio batzuetan.

Era berean, gertaera-kate horrek hausnarketa piztu beharko luke, bai Nafarroako Gobernuan, bai udaletan beraietan, egun diru-laguntzak emateko sistema egoki-tzeari buruz; helburua litzateke sistema malguago bat bilatzea, obrek benetan au-rrera egiten duten heinean finantzazioa lortzeko sistema lehenetsita.





## VI. Udalaren 2010eko kontu orokorraren laburpena

Ondoren, Altsasuko Udalaren 2010eko kontu-egoera garrantzitsuenak ageri dira (esklusiboki).

### VI.I. 2010eko aurrekontua betetzearen egoera


#### Gastuak, kapitulu ekonomikoen arabera antolaturik

Deskripzioa	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharraak	Bete-tako %	Ordainketak	Ordaindu gabe oraindik
1. Langileen gastuak:	2.533.608,09	-33.210,73	2.500.397,36	2.408.783,09	96	2.380.846,94	27.936,15
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	1.625.791,08	29.183,01	1.654.974,09	1.500.257,15	91	1.442.548,16	57.708,99
3. Finantza-gastuak	60.122,00	-905,23	59.216,77	56.586,70	96	56.586,70	0
4. Transferentzia arruntak	1.183.686,15	20.571,63	1.204.257,78	1.106.448,19	92	991.708,95	114.739,24
6. Inbertsio errealak	1.917.715,65	9.113.551,55	11.031.267,20	2.467.018,38	22	1.987.491,81	479.526,57
7. Kapital-transferentziak	10.000,00	0	10.000,00	0	0	0	0
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	-	0	0
9. Finantza-pasiboak	134.301,07	28.959,82	163.260,89	163.260,89	100	163.260,89	0
<b>Guztira</b>	<b>7.465.224,04</b>	<b>9.158.150,05</b>	<b>16.623.374,09</b>	<b>7.702.354,40</b>	<b>46</b>	<b>7.022.443,45</b>	<b>679.910,95</b>

#### Diru-sarrerak, kapitulu ekonomikoen arabera antolaturik

Deskripzioa	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharraak	Bete-ako %	Kobrantzak	Kobratu gabe oraindikoa
1. Zuzeneko zergak	1.943.887,15	0	1.943.887,15	2.003.517,89	103	1.863.037,63	140.480,26
2. Zeharkako zergak	58.365,47	0	58.365,47	67.288,50	115	55.173,42	12.115,08
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	818.288,90	0	818.288,90	847.657,67	104	663.104,53	184.553,14
4. Transferentzia arruntak	2.544.777,71	33.157,50	2.577.935,21	2.606.275,48	101	2.513.446,42	92.829,06
5. Ondareko diru-sarrerak	185.821,39	0	185.821,39	150.867,91	81	147.504,11	3.363,80
6. Inbertsio errealen betterentzea	150.874,29	0	150.874,29	0	0	0	0
7. Kapital-transferentziak	1.763.209,13	7.766.058,20	9.529.267,33	2.031.541,54	21	1.117.586,72	913.954,82
8. Finantza-aktiboak	0	1.358.934,35	1.358.934,35	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0
<b>Guztira</b>	<b>7.465.224,04</b>	<b>9.158.150,05</b>	<b>16.623.374,09</b>	<b>7.707.148,99</b>	<b>46</b>	<b>6.359.852,83</b>	<b>1347.296,16</b>





## VI.2 2010eko aurrekontu-emaitza


<b>Kontzeptua</b>	<b>2009 (*)</b>	<b>2010</b>
+ Aitortutako eskubideak	10.653.166,98	7.707.148,99
- Aitortutako betebeharrak	10.707.125,79	7.702.354,40
<b>= Aurrekontuaren emaitza:</b>	<b>-53.958,81</b>	<b>4.794,59</b>
<b>Doitzreak</b>		
- Finantzazioaren desbideratze positiboak	-1.132.279,73	644.767,98
+ Finantzazioaren desbideratze negatiboak	889.188,73	1.001.292,65
+ Diruzaintzako soberakin likidoaz finantzaturiko gastuak	49.845,95	55.197,68
+ Diruzaintzako soberakinez finantzaturiko gastuak-ekitaldia	385.516,49	12.542,50
<b>= Aurrekontu-emaitza doitua</b>	<b>138.312,63</b>	<b>429.059,44</b>

## VI.3. Diruzaintzako soberakinaren egoera 2010eko abenduaren 31n

<b>Kontzeptua</b>	<b>2009 (*)</b>	<b>2010</b>
<b>(+) KOBRAZTEKO DAUDEN ESKUBIDEAK</b>	<b>2.818.648,93</b>	<b>1.635.558,64</b>
(+) Diru-sarreren aurrek.: Indarreko ekitaldia	2.439.707,50	1.347.296,16
(+) Diru-sarreren aurrek.: Itxitako ekitaldiak	540.113,53	621.715,23
(+) Aurrekontutik kanpoko diru-sarrerek	309.029,84	208.255,03
(-) Biltzeko zailak diren eskubideak	470.201,94	541.707,78
<b>(-) ORDAINTZEKO DAUDEN BETEBEHARRAK</b>	<b>3.153.995,35</b>	<b>2.080.500,06</b>
(+) Gastuen aurrek.: Indarreko ekitaldia	2.512.071,90	679.910,95
(+) Gastuen aurrek.: Itxitako ekitaldiak	248.060,53	1.045.535,22
(+) Aurrekontutik kanpoko gastuak	393.862,92	355.053,89
<b>(+) DIRUZAINTZAKO FUNTS LIKIDOAK</b>	<b>527.334,63</b>	<b>547.020,04</b>
<b>(+) FINANTZIAZIOKO DESBIDERATZE METATU NEGATIBOAK</b>	<b>1.238.874,00</b>	<b>1.031.853,44</b>
<b>= DIRUZAINTZAKO SOBERAKINA, GUZTIRA</b>	<b>1.430.862,21</b>	<b>1.133.932,06</b>
Diruzaintzako soberakina finantzazio atxikia duten gastuengatik	1.039.913,44	556.207,76
Diruzaintzako soberakina baliabide atxikiengatik	377.654,86	338.657,18
Diruzaintzako soberakina gastu orokorretarako	13.293,91	239.067,12

(\*) Auditoria egin gabeko ekitaldia





## VI.4. Egoeraren balantzea 2010eko abenduaren 31n

### AKTIBOA

Deskripzioa		2010	2009 (*)
<b>A</b>	<b>IBILGETUA</b>	<b>38.714.537,08</b>	<b>36.456.196,64</b>
1	Ibilgetu materiala	24.025.525,52	22.003.395,78
2	Ibilgetu ez-materiala	1.607.183,95	1.596.209,95
3	Erabilera orokorrerako azpiegitura eta ondasunak	11.736.409,59	11.555.976,91
4	Herri-ondasunak	1.341.997,82	1.297.193,80
5	Finantza-ibilgetua	3.420,20	3.420,20
<b>C</b>	<b>ZIRKULATZAILEA</b>	<b>2.822.409,12</b>	<b>3.901.572,78</b>
8	Zordunak	2.275.389,08	3.374.238,15
9	Finantza-kontuak	547.020,04	527.334,63
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>		<b>41.536.946,20</b>	<b>40.357.769,42</b>

### PASIBOA

Deskripzioa		2010	2009 (*)
<b>A</b>	<b>BEREZKO FUNTSAK</b>	<b>36.643.485,55</b>	<b>34.240.287,97</b>
1	Ondarea eta erreserbak	18.734.104,51	18.419.111,98
2	Ekitaldiaren emaitza ekonomikoa (etekina)	606.000,96	314.992,53
3	Diru-laguntzak	17.303.380,08	15.506.183,46
<b>C</b>	<b>EPE LUZERAKO HARTZEKODUNAK</b>	<b>2.714.837,93</b>	<b>2.878.098,82</b>
4	Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailuak	2.714.837,93	2.878.098,82
<b>D</b>	<b>EPE LABURRERAKO HARTZEKODUNAK</b>	<b>2.178.622,72</b>	<b>3.239.382,63</b>
5	Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	2.178.622,72	3.239.382,63
<b>PASIBOA GUZTIRA</b>		<b>41.536.946,20</b>	<b>40.357.769,42</b>

(\*) Auditoria egin gabeko ekitaldia





## VI.5. 2010eko galeren eta irabazien kontua

### Ekitaldiko emaitza arruntak


ZORRA			HARTZEKOA		
DESCRIPZIOA	2010	2009 (*)	DESCRIPZIOA	2010	2009 (*)
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Bukaerako erosketak	0	0
3 Izakinen balio-galtzeen hormidura	0	0	39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	0	0
6 0 Erosketak	0	0	70 Salmentak	573.295,81	611.487,16
6 1 Langileria-gastuak	2.445.381,5	2.519.648,7	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	369.195,31	369.354,26
6 2 Finantza-gastuak	56.586,70	75.818,76	72 Produkzioari eta importazioari loturtako tributuak	1.353.323,29	1.586.972,21
6 3 Tributuak	1.801,78	1.932,72	73 Errentaren gainezkeria	440.320,77	439.706,26
6 Lanak, hornikuntzak eta kanpo 4 zerbitzuak	1.461.856,9	1.322.488,4			
6 5 Gizarte-prestazioak	0	0	75 Ustiaketarako diru-laguntzak	0	0
6 6 Ustiaketarako diru-laguntzak	0	0	76 Transferentzia arruntak	2.606.275,48	2.529.552,34
6 7 Transferentzia arruntak	1.106.448,1	1.394.090,7	77 Kapitalaren gainezkeria	292.242,13	126.283,91
6 8 Kapital-transferentziak	0	0	78 Beste diru-sarrera batzuk	72.234,46	7.657,98
6 9 Amortizazio eta horniduretarako hornidurak	0	0	79 Daukaten helbururako aplikazioak	0	0
8 0 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	634.812,12	357.034,75	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>5.706.887,25</b>	<b>5.671.014,12</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>5.706.887,25</b>	<b>5.671.014,12</b>

### Ekitaldiko emaitza

DESCRIPZIOA	2010	2009 (*)	DESCRIPZIOA	2010	2009 (*)
80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	0	0	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	634.812,12	357.034,75
82 Ohiz kanpoko emaitzak (saldo zorduna)	5.614,47	0	82 Ohiz kanpoko emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuen eskubide zein betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	23.196,69	42.042,22	84 Itxitako aurrekontuen eskubide zein betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)	0	0
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	606.000,96	314.992,5	89 Galera garbia, guztira (saldo zor- duna)	0	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>634.812,12</b>	<b>357.034,75</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>634.812,12</b>	<b>357.034,75</b>

(\*) Auditoria egin gabeko ekitaldia





## VII. Udalari eta horren mendeko erakundeei buruzko iruzkin, ondorio eta gomendioak

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Ganbera honen iritziz udalak eta horren mendeko erakundeeek ekin beharreko gomendio eta ohar nagusiak, bere antolaketa, prozedura, kontabilitate eta barne kontroleko sistemak hobetze aldera.

### VII.1. Alderdi orokorrak

2010eko uztailaren 30ean onetsi zen hasiera batez 2010eko aurrekontua.

Kontu orokorrak ez du barne udalaren eta haren erakunde autonomoen egoera bateratua; aldiz, bakoitzaren informazioa erakusten da banaka memorian.

Udalaren ondasunen inventarioa 1989an egin zen, eta ez da gauskotu.

Kontu korronte baten saldoa ez da kontabilitatean sartzen; izan ere, bere funtzionamendu espezifikoagatik, Udalak kontu horretan egindako ekarpenak ekitaldiko gastutzat jotzen dira.

#### Gomendioak:

- *Indarrean dagoen legeriak ezarritako epeen barnean egitea eta onestea Udalaren eta bere erakunde autonomoen aurrekontuak.*
- *Garatutako jardueraren irudi zehatza osatzeko, kontu orokorrean agertzea Udalaren eta beren erakunde autonomoen egoera bateratua.*
- *Udalaren ondasun eta eskubide guztien inventario baloratua eguneratzea eta onestea.*
- *Inventarioko alten eta bajen kontrola eta jarraipena egiteko sistema bat ezartzea, hori etengabe eguneratzeko eta kontabilitateko ibilgetuarekin duen koneksioa errazteko.*
- *Kutxa finkoko aurrerapenen figuraz baliatzea banku kontu batzuen funtzionamendua erregulatzeko, beren funtzionamendu bereziagatik gomendagarria bada.*

### VII.2. Langileria

Langileriaren gastua 2,4 milioikoa izan da; hau da, 2010ean sortutako gastu guztien %31, eta gastu arrunten %47. 2009ko ekitaldiari dagokionez, kapitulu hori %3 murritztu da.

Ordainsarien gastuari erreparatuta, %50 langile funtzionarioei dagokie, eta %41 behin-behineko langileei.

Udalaren Osoko Bilkurak ez zituen onetsi 2009 eta 2010eko plantilla organikoak. Horren ondorioz, 2008ko plantilla organikoak jarraitzen du indarrean, unean uneko bi aldaketa eginda (bata 2009an, eta bestea 2010ean).





Plantilla horrek, guztira, 51 lanpostu zituen, eta, guztira, 23 leku zeuden bete gabe. 2010ean, guztira, 43 leku aurreikusten ziren, eta 16 zeuden bete gabe; dena dela, horietako bost estalita zeuden behin-behineko moduan.

2010eko abenduaren 31n, guztira, 77 pertsona ari dira lanean Udalean; hona hemen horren azalpena:

Langileak	Kopurua
Korporatiboak	1
Funtzionarioak	17
Langile finkoak	5
Behin-behineko kontratudunak	54
<b>Guztira</b>	<b>77</b>

Behin-behineko langileen artean daude, besteak beste, zenbait programa sozi-kulturaletako monitoreak.

2009ko ekitaldiari dagokionez, hiru langile gutxiago daude.

Gastu horien lakin baten gainean egindako berrikuspena eginda, ondorioztatu da, oro har, ordaindutako ordainsariak egiten den lanerako ezarrita daudenak direla, egindako atxikipenak zuzen egin direla, eta langileen gastuak behar bezala kontabilizatuta daudela. Hala eta guztiz ere, honako alderdi hauek aipatu nahi ditugu:

- Udal idazkariak plantilla organikoari buruz egindako txostenen bitartez, Udala jakitun dago horretan dauden gabeziez. Besteak beste, honako hauek dira funtsean: arloen araberako postuen sistematizazio-falta, postu bakoitzerako numerazio falta, postu batzuen bikoitzasuna, eta sarbide batzuetara sartzeko sistema berriz zehaztea. Era berean, idazkari horrek memorian aipatzen duenez, zenbait akats zuzendu behar dira horien funtzionamenduan, besteak beste, postuak lortzean euskarari emandako tratamendua bateratzea, antzeko postuetarako osagarri desberdinak egotea, eta plantillan ez dauden lanpostuak baina modu etengabean eta luzaroan okupatuta egon direnak. Alderdi-multzo hori (azkena izan ezik) konpontzen zen Osoko Bilkurak onetsi ez zuen 2010eko plantilla organikorako proposamenarekin.

- Nomina kudeatzeko programa informatikoa ez da guztiz egokia entitate publiko baten exijentziei erantzuteko; beraz, kanpoko kalkuluak eta eskuz egindako doitzeak egin behar dira, bai nominetan, bai kontabilitatean, akatsak izateko arriskua handitura.

- Ez da aplikatzen nominaren gaineko barne-kontroleko prozedurarik.
- Langileen espedienteek batzuetan ez dute behar den administrazio-informazio guztia, bereziki, mailaren eta antzinatasunaren aitorpenari buruzko akordioek.

Azkenik, baiezta dugu Udalak betetzen duela 12/2010 Foru Legea, ekainaren 11koa, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitatean moldatzen dituena. Udaleko langileen gastuak 23.268 euro murritzu dira, eta zor-amortizazio partzial aurreratu gisa aplikatu da.





#### Gomendioak:


- *Udaleko idazkariak adierazitako moduan, sakonki berrikustea Udalaren plantilla organikoaren diseinua eta egitura, legezkotasun, segurtasun eta gar-dentasunari buruzko printzipioei behar bezala erantzuteko; halaber, aztertzea arrazoizkoa den ala ez horren barnean dauden lanpostuak, benetan okupatuta-koei eta Udalaren benetako beharrei erreparatuta.*
- *Urtero onestea langileen plantilla organikoa, langileria behar bezala kudeatzeko moduko tresna egokia izan dadin.*
- *Indarrean dagoen araudiaaren testuinguruan, enpleguaren eskaintza publi-koan sartzea aurrekontuan hornidura izanda bete gabe dauden lanpostu guztiak.*
- *Nominen aplikazio informatikoa Udalaren kudeaketa-beharretara egokitzea.*
- *Barne-kontroleko prozedura bat diseinatzea langileen gastuaren osotasuna eta legezkotasuna ziurtatzeko.*
- *Langileriaren administrazio-espedienteak osatzea nominan eragina duten gertaeren justifikazio-dokumentu guztiekin.*

#### VII.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan izandako gastuak 1,5 milioikoak izan dira 2010eko ekitaldian; ekitaldiko gastu guztienei %19 da hori, eta eragiketa arruntetako gastuen %30. 2009. urteari dagokionez, %10 igo dira.

2010eko handitze horren justifikazioa dator, funtsean, irizpide-aldeketa batetik; izan ere, Sakanako Mankomunitateak fakturatutako uraren goi-hornidura gastu gisa ageri da kontuan, baina aurreko ekitaldietan transferentzietaen erregistratzen zen. Gastu hori ez badugu kontuan hartzen (206.004 euro), 2. kapituluaren zenbatekoa %5 murritzua da 2009koarekin alderatuz gero.





Honako kontratazio-espediente hau berrikusi da (zenbatekoak BEZA kanpo):

Deskripzioa	Kontratu mota	Procedura	Eskaintza-egileak	Lizitazioaren zenbatekoa	Esleipenaren zenbatekoa
Iortia kultur zentroaren kudeaketa	Laguntza	Irekia	2	124.000	124.000

Aurreko berrikuspena eta kapitulo honetan erregistratutako gastuen lakinaren azterketa eginda, egiaztatu da dagozkien fakturekin justifikatuta daudela eta behar bezala kontabilizatu direla; halaber, aplikatzekoa den araudia arrazoizko moduan errespetatu dela ere egiaztatu da. Nolanahi ere, hobetzeko moduko alderdi hauek ere ikusi dira:

- Kontratu jakin batzuetan (adibidez, zerbitzu informatikoak eta agentzia exekutiboa) gainditu dira kontratazio-araudiak markatutako indarreko epeak.
- Zerbitzu batzuek 2010ean izandako gastu bolumena ikusita, horiek mantenduz gero, zenbatekoari egokitutako kontratazio-prozedura bat aplikatu beharko litzateke.
- Udalaren zerbitzu ekonomikoek ez dute nahikoa informaziorik analizatzeko eta kontrastatzeko Mankomunitateak uraren goi-horniduragatik eratorritako gastua arrazoizkoa ote den.

#### Gomendioak:

- Kontrol handiagoa izatea hirugarrenekin egindako kontratuengen indarraldiari buruz, eta aurretik planifikatzea, nahikoa denboraz, egokia den lizitazio-prozeduraren hasiera.
- Aldez aurretik urteko gastuen bolumena kalkulatzeko aukera dagoen kasuetan, dagozkion kontratazio-espedienteak tramitatzea.
- Sakanako Mankomunitateari exijitzea Udalari fakturatutako gastuari buruzko euskarri-informazioa.

#### VII.4. Transferentzien ondoriozko gastuak


Izaera horretako gastuak, denak arruntak, 1,1 milioikoak izan dira; 2010ean sortutako gastu guztien %14 da, eta gastu arrunten %22.

2009. urteari dagokionez, gastu horiek %21 murriztu dira; hori bai, uraren goi-horniduraren kontsumoko gastuak berriz sailkatzearen eragina kentzen badugu, %1 baino ez dira murriztu. Aldaketa garrantzitsuenak Patronatuei eta Sakanako Mankomunitateari egindako ekarpenetan ikusten dira, %15 eta %14 handitu baitira horiek, hurrenez hurren.

Egindako lanari dagokionez, honako alderdi hauek nabarmentzen ditugu:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Diru-laguntzei buruzkoak, 8. artikuluan ezartzen du diru-laguntzei buruzko plan estrategiko batean zehaztu behar direla horien nondik norakoak (horiek aplikatuz lortu nahi diren helburuak eta eraginak, horiek eskuratzeko behar den epea, aurreikusitako kostuak, eta finantzazio-iturriak); halaber, betiere aurrekontuen egonkortasuna izateko helburuak betetzearen mende





egon behar dutela ere ezartzen du. Udalak ez du diru-laguntzei buruzko plan estrategiko bat.

- Mankomunitate eta partzuergoetako kide izateagatik Udalari egotzitako gastua arrazoizkoa den edo ez baiezatzeko, udal zerbitzuek ez dute beti nahikoa informaziorik hori egokia ote den kontrastatzeko.
- Udalak lankidetzarako 10 hitzarmen sinatu zituen kirol-eskola eta klubekin, guztira, 102.817 euroko zenbatekoa izanda; hitzarmen horien bitartez, entitate horiek jarduera multzo bat kudeatzen dute, Udalak berak antolatu eta kobratzen baditu ere. Gure iritziz, jarduera hori zerbitzu-estate bat da berez, eta ez diru-laguntzak emateko moduko jarduera bat; hartara, Kontratuei buruzko Foru Legearen bidez tramitatu beharko litzateke, eta ondasun arruntetako eta zerbitzuetako 2. kapituluko aurrekontuetan egotzi beharko litzateke.
- Udal ikastolari emandako 53.000 euroko diru-laguntza zuzena (zentro itundua), bere funtzionamenduko gastuak finantzatzeko, ez dago araututa dagokion hitzarmen edo akordioaren bidez.
- Urtean deialdi publiko bat egiten da kirol-entitateei diru-laguntzak emateko; 2010ean, guztira, 15.000 euroko gastua izan da. Gastu hori aurreko ekitaldian egin-dako jarduerei dagokie, 2009ko deialdia atzerapen handiz tramitatu baitzen.

#### *Gomendioak:*

- *Diru-laguntzei buruzko plan estrategiko bat egitea, helburuak, ondorioak, aurreikusitako kostuak, baliabideen aurreikuspena, eragina, eta abar zehaztuta.*
- *Mankomunitateek eta partzuergoek informazio ekonomiko zehatza eman behar dute udal zerbitzuek behar bezala baiezta dezaten horien kide izatetik erortitako gastua egokia den edo ez.*
- *Kirol-eskoletako kudeaketa tramitatzea Kontratuei buruzko Foru Legearen arabera, eta gastuak aurrekontuari egoztea beren izaera ekonomikoaren arabera.*
- *Ikastolari bere funtzionamendurako gastuak finantzatzeko emandako diru-laguntza zuzena lankidetzarako akordio edo hitzarmen baten bitartez arautzea.*
- Zenbatekoa eta garatutako jarduera ikusita, kirol-entitateei diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak simplifikatzea, besteak beste, honako alderdi hauetan: banatzeko irizpideak, diru-laguntzaren xedea den jarduera, eta justifikatzeko exijitu daitekeen dokumentazioa.

#### VII.5. Inbertsioak

2010eko behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioei dagokienez (11 milioi), horien %22 bete dira, hau da, 2,5 milioi; ekitaldian aitortutako betebehar guztien %32 da.

Kapitulua maila eskas batean bete da, eta horren arrazoia, gehienbat, bi hauetak dira: erabilera publikora zuzendutako azpiegitura eta ondasunetarako inbertsioak betetzean izandako atzerapena, eta hirigintza-garapenari buruzko espedienteak bukatu ez izana.





2009. urtearekin alderatuta, inbertsioak %53 murriztu dira, hau da, 2,8 milioi guxiago daude. Urte horretan, inbertsioen betetze-maila %33koa izan zen.

2010ean esleitutako espediente hauek berrikusi dira: (zenbatekoak BEZA kanpo):

Deskripzioa	Kontratu mota Procedura	Eskaintza-egileak	Lizitazioaren zenbatekoa	Esleipenaren zenbatekoa
0 eta 3 urte bitarteko ikastetxeko moduluak erostea	Higiezinen salerosketa	Kontratacio zuzena	3	- 156.500
Dantzaleku aldagelak berritzea	Laguntza teknikoa	Publizitaterik gabe negoziatua	2	34.483 29.580
Dantzaleku aldagelak berritzea	Lanak	Publizitaterik gabe negoziatua	3	389.831 344.111

Era berean, honako kontratu hauen betetzea berrikusi da:

- Dantzaleku kirolguneko lanak (824.874 euro).
- Navarro Villoslada eraikineko egituraren erreforma (205.216 euro).

Egindako azterketan egiaztatu da kontratuei buruzko legeria bete dela kontrato-espedienteak tramitatzean, esleitzean eta gauzatzean, bai eta kontabilizatutako gastuak arrazoizkoak direla ere. Hala eta guztiz ere, honako alderdi hauek aipatu nahi ditugu:

- Higiezinak eskuratzeraoan behar bezala justifikatu behar da prozedura zuzenaren aukeraketa, araudian aurretik ezarritako arrazoiren baten arabera.
- Kirolguneko obretan, Kontu-hartzearen eragozpen bat dago, proiektuaren egi-leek gastu handiago bat fakturatu zutelako aldez aurretik aurrekontuan nahikoa krediturik izan gabe. Osoko Bilkurak kreditu-gehigarri bat onetsi behar izan zuen gastu handiago horri aurre egiteko.

Gomendioak:

- *Inbertsioak behar bezala planifikatzea eta horiek betetzeko egutegiak ezartzeara errealitateari eta kudeaketa-gaitasunari hobeki egokitutako aurrekontuak egiteko.*
- *Kudeaketa-prozedurak ezartzeara garatzekoak diren hirigintza-obrei eta operazioari buruzko informazioa helarazteko, bai Idazkaritzari, bai Udalaren Kontu-hartzeari; horren xedea da horiei buruzko barne-kontrol, ikuskaritza eta aholkularitzaren gainean egin behar duten lana behar bezala egin ahal izatea.*

## VII.6. Aurrekontuen diru-sarrerak

Aitortutako eskubideak, 2010ean, 7,7 milioikoak izan dira; %74 eragiketa arrunten diru-sarrerei dagokie, eta %26 kapital-eragiketei.

Eragiketa arruntetan zerga bidezko diru-sarrerak nabarmentzen dira (2,9 milioi euro), bai eta transferentzia arrunktak ere. Kapital-operazioetan, diru-sarrerra jaso-tako kapital-transferentziaren kapituluari dagokio (bi milioi euro).






Diru-sarreren aurrekontuaren betetze-maila %46koa izan da. Maila txiki hori sortu da kapital-transferentzien betetze-maila eskasarengatik (%21 soilik): horren arrazoia izan da, funtsean, sektore batzuen birpartzelaziotik/urbanizaziotik eratorri-tako kuota bat ere ez dela igorri (ikusi VII.7. atala Hirigintza).

2009. urteari dagokionez, aitortutako eskubideak %28 murriztu dira, honako banakapen honekin:

Diru-sarreren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak 2009	Aitortutako eskubide garbiak 2009	Aldaketa 2010/2009
1 Zerga zuzenak	1.872.010	2.003.518	7
2 Zeharkako zergak	280.952	67.288	- 76
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk.	836.038	847.658	1
4 Transferentzia arruntak	2.529.552	2.606.275	3
5 Ondare bidezko diru-sarrerak	150.007	150.868	0
<b>Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)</b>	<b>5.668.559</b>	<b>5.675.607</b>	<b>0</b>
7 Kapital-transferentziak	4.152.608	2.031.542	- 51
9 Finantza-pasiboak	832.000	0	
<b>Kapital eta finantza eragiketen diru-sarrerak (6tik 9ra)</b>	<b>4.984.608</b>	<b>2.031.542</b>	<b>- 59</b>
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	<b>10.653.167</b>	<b>7.707.149</b>	<b>- 28</b>

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren murrizketa nabarmentzen da (zeharkako zergak), baita kapital-transferentzienak ere; era berean, zerga zuzenen jokaera ona ere nabarmentzeko modukoa da.





Ondorengo taulan aitortutako eskubideen bilakaera ager da, udal zerga bakoi-tzaren arabera antolaturik:

Diru-sarreren kapituluak	Aitortutako eskubideak 2009	Aitortutako eskubideak 2010	Aldaketaren % 10/09
Lurralde-kontribuzioa	1.063.170	1.063.119	0
Ibilgailuak	439.706	440.321	0
Lur-sailen gainbalio-zerga	126.284	277.162	220
<b>Ekonomia jardueren gaineko zerga</b>	<b>242.850</b>	<b>222.916</b>	<b>- 8</b>
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	280.952	67.288	-76
<b>Guztira</b>	<b>2.152.962</b>	<b>2.070.807</b>	<b>- 4</b>

Aldaketa nagusiak Lur-sailen gainbalio-zergaren diru-sarreretan ikusten dira, bi-koitza baino gehiago izan direlako urte batetik bestera; aitzitik, Ekonomia jardueren gaineko zerga eta Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga murriztu dira krisi ekonomikoaren ondorioz.

Udalak aplikatutako tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak ezarritako sortaren goiko eta erdiko tartean kokatzen dira, honako taula honetan ikusten ahal den bezalaxe.

Tributu mota	Udala	2/95 Foru Legea
Lurralde-kontribuzioa	0,34	0,10 - 0,50
Ekonomia-jardueren gaineko zerga	1,4	1 - 1,4
Lur-sailen gainbalio-zerga		
Gaurkotze-koefizientea	3,2 - 3,4 bitarte	2 - 3,8 bitarte
Karga mota	20	8 – 20 bitarte
Eraikuntza, instalazioa eta obrak	3,66	2 - 5


2009ko ekitaldian onetsitako eta indarrean zeuden tasak mantentzen dira.

2010eko abenduaren 31n, 605.562 euro dira 2000. eta 2009. urteen bitarteko aldiari dagozkion zordunak (diru-sarreren aldetik).

Diru-sarreren aurrekontu bateratuaren kontu-sailen lagin baten gainean egin-dako azterketaren ondorioz egiaztago dugu, oro har, behar bezala tramitatu eta kontabilizatu direla. Dena dela, honako hau nabarmenzen dugu:

- Balorazio-txostenaren azken aurreikuspena 2002koa da. Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko 12/2006 Foru Legearen 35. artikuluaren arabera, gutxienez, bost urtetik behin berrikusi behar da.
- Harrobiko ustiapenaren kontzesioan antzeman dugu ez dela aldian behingo neurketarik egin benetan okupatutako azaleraren gainean, eta ez dagoela ustiaperako plan orokorrik, ezta urteko planik ere.





### Gomendioak:

- *Balarazio-txostena berrikustea, indarrean dagoen araudian azaldutako moduan.*
- *Harrobiaren kontzesioan ezarritako baldintzak betetzea.*

Azkenik, nabarmentzen dugu Osoko Bilkurak 2011ko azaroan izandako akordio baten bidez onetsi zuela Zergak kontrolatzeko Udal Plan bat 2012ko eta 2013ko ekitaldiatarako. Horren helburua da zergen arloko iruzurra detektatzea udal zerga guztietai, batez ere honako zerga hauetan: Ekonomia jardueren gaineko zerga, Gainbalioa, Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga, eta Enpresa-hornitzairen jabari publikoaren erabilera.

### VII.7. Hirigintza

Altsasuko Udalak bere baliabideekin garatzen ditu hirigintza-arloko lanak, Hirigintza-arloko unitatearen bidez. Honako langile hauek daude horri atxikiak:

- Arkitekto teknikari bat.
- Ofizial administrari bat.

Horrez gain, Udalak kanpoko aholkularitza du hirigintzaren arloan; arkitekto batet egiten du, eta, 2010ean, 15.496 euro izan dira.

2003an onetsi zen Altsasuko Udalaren Antolamendu Plana. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea ezarri zuen, 2006ko apirila arte, indarrean zeuden planeamenduak homologatzeko eta egokitzeko. Udalak, egundaino, ez ditu abian jarri arrestiko lege horretan ezarritakora egokitzeko tramiteak.

Udalak duen lurzoru-ondarea ez da kudeatzen eta erregistratzen entitatearen gainerako ondasunetatik bereizita, eta ez da horri buruzko inventariok ageri.

Udalak hirigintza arloko hitzarmen erregistro bat kudeatzen du. 2010ean, kudeaketa-hitzarmen bat sinatu da unitate baten aprobetxamenduen %10 Udalari uzteko; aprobetxamendu horien tasazia 16.200 eurokoa da.

Honako hauek dira zehatz-mehatz azaltzen diren hirigintza-jarduketak:

Jarduketa	Erabilera
Dermau birpartzelazioa	Industria
Lezalde birpartzelazioa	Familia bakarreko etxebizitzak
Otadia birpartzelazioa	Bizileku + familia bakarreko etxeak
Zelandi I. sektorearen garapena	Etxebizitza kolektiboak
Arkangoa 2. sektorea	Etxebizitzak

Birpartzelazioetan, Udalak lankidetza-sistema erabiltzen du jarduket0a-sistema gisa, hau da, jabeek nahitaez laga beharreko lurzorua ematen dute, eta Udalak ur-





banizazio-lanak kudeatu eta gauzatzen ditu horien kargura. Sistema horrek lan-zama handia ekarri die udaleko langileei, eta dagoen auzi-kopurua ikusita, gastu juridiko handiak ere ekarri ditu.

Honako hau da horien egoera:

a) Dermau birpartzelazioa: Memoriak adierazten duenez, “*Berehalakoan bidali beharko dira dagoeneko sortuak diren gastuengatiko urbanizazio-kuotak (161.074,64 euro), Birpartzelazio-proiektu berria inskribaturik egonda, eta, bere kasuan, hirigintzako tramiteak eta/edo tramite teknikoak abiarazi beharko lirateke espaldientearekin jarraitzeko. Ez bada horrela egiten, partzelen gaineko urbanizazio-kargak edo kuotak preskribitzeko arrazoia izan daiteke*”. Horri dagokionez, nabarmentzen dugu proiektuaren inskripzioa 2007an egin zela, eta geroko tramiteak egiteko epea bost (behin betiko likidaziorako) eta zazpi urte (kargen erregistro-afektaziorako) bitartean zegoela. Era berean, urbanizazio-kostua aztertzen ari da, oso altua baita gaur egungo egoerarako; horrela, zenbait alternatiba planteatzen ari dira, eta aztertzen ari da aldaketa horrek epe berri bat sortzen ote duen jabeei gastuak bidaltzeko.

b) Lezialde birpartzelazioa: Sektore horren urbanizazio-lanak geldiarazita daude. Judizioz kanpoko akordio bat lortu da kontratistarekin, eta horren bidez baliogabetu egin da kontratu hori, baita erreklamatzen zuen industria-etekina ere (138.351 euro). Udalak laguntza-kontratutik eratorritako gastuengatik aurreratutako gastuak 163.534 euro dira.

c). Otadia birpartzelazioa: Urbanizazioa bukatuta dago. Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiaren ondorioz, Udal plana, Plan partziala eta Birpartzelazio-proiektua aldatu behar izan ziren. 2011n urbanizazio kuotak bidali dira (1,1 milioi) baina horien aurkako errekurtsoa jarri da; behin betiko likidazioa 2012. urterako aurreikusten da. Halaber, aprobetxamendu batzuen balorizazioaren aurkako errekurtsa bat ere badago, eta, aurreikusten denez, horren eragin ekonomikoa 0,3 milioi eurokoa izan daiteke.

d) Zelandi sektorearen garapena: 2011n errekurtsoa ebatzi da, eta bertan behera utzi du dagokion plan partziala. Autobiatik hurbil dagoenez, garapen horren koka-pena berriz planteatu beharko da, zaratari buruzko araudi berriaren eragina dela-eta.

e) Arkango sektorea: Geldiarazita dago. Esleipendunarekin adostuta baliogabetu zen kontratua, antolamendu-azterketa eta alternatibak idazteko.

Egoera horiei buruz, Udaleko kontu-hartzialeak egindako txostenean (txosten honetan ageri da eranskin gisa), zera adierazten da: “*Premiazkoa da berehalakoan erre-gularizatzea hirigintza-egoera guztia, eta arloaren kudeaketaren gaineko kontrol zorrotzagoa egitea. Ez bada horrela egiten, etor litezkeen erantzukizunez gainera, udalak “galduko luke” aurreratutako zenbateko, eta soberakinen zenbateko aldatuko litzateke 239.067,12 eurotik -85.542 eurora igarota; izan ere, 324.609,12 euro aurreratu dira jada doitzea egindako sektoreei dagokienez*”.

Gomendioak:

- *Hirigintza-planeamendua egokitzea Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak ezarritakora.*





- *Lurzoruaren udal ondarearen inventarioa eta erregistroa sortzea, kontuan hartuta gainerako ondasunetatik bereizita kudeatu behar dela, eta indarrean dagoen legerian ezarritako xedeei lotutako izaera duela.*
- *Egokiak diren kudeaketa-neurriak premiazko moduan hartza Udalak arestiko garapen horiek gauzatzeko aurreratutako zenbatekoak berreskuratzeko.*
- *Gaur egungo egoera ekonomikoa kontuan hartuta, geldiarazitako jarduketak berrikustea eta horiei buruzko erabaki egokiak hartza.*

## VII.8. Erakunde autonomoak

### A) Aita Barandiaran Zaharren Egoitza

Egoitzak 936.262 euroko aurrekontua zuen hasieran 2010. urtean, baina zenbait aldaketa tarteko, 956.069 eurokoak dira behin betiko hornidurak. Aitortutako bete-beharrak eta eskubideak 926.686 eurokoak dira, eta %97ko gauzatze- eta betetze-portzentajea du, hurrenez hurren.

2010eko ekitaldiaren aurrekontu-emaitzan 680 euroko emaitza positiboa izan da; diruzaintzako soberakina osoan eta gastu orokorretarakoan, halaber, 25.681 euroko emaitza positiboa izan da.

Nafarroako Gobernuak eraiki eta ekipatu zuen egoitzaren eraikina Udalak berak hari emandako orube batean. Nafarroako Gobernuaren inventarioan ageri da Nafarroako Mendekotasun Agentziari atxikitako ondasun gisa (Patronatuari utzita bere erabilera).

Patronatuak ez du inventariorik, eta bere balantzeak ez du islatzen Gobernu horrek utzitako ondasunen balioa. Ez du epe luzerako zorrik.

Horrela bideratu eta finantzatu da egoitzak gastatutako 100 euroko kopuru batkoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantzazio-iturria	Zenbatekoa
Langileak	66	Tasak eta prezioak	48
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	34	Transferentziak	52
Besterik			
	100		100

Udalaren Osoko Bilkurak ez zuen berretsi 2010eko plantilla organikoa, nahiz eta Patronatuko batzarrak onetsia zuen hasiera batez 2010eko uztailean, Udaleko eta bere erakunde autonomoetako plantilla ez baitzen onartu. Gauza bera gertatu zen 2009an. Hartara, indarrean jarraitzen du formalki 2008ko plantillak.

Plantilla horretan berez ez zaie erreferentziarik egiten lanpostuei, baizik eta jardunaldi oso baliokidea duten lanpostuei. Guztira, 18,35 lanpostu hartzen ditu.

2010eko abenduan lanean ari diren langileak, guztira, 21 dira, eta denek aldi batetako lotura dute, honela azalduta:





- Zuzendari kudeatzaile bat.
- Osasun Laguntzaile Tekniko bat.
- Mantentze-lanetako langile bat.
- 18 laguntzaile: 13 jardunaldi osoan eta bost jardunaldi partzial desberdinekin.

2010. urte honetan, gainera, ordezkatzeko 5 kontratu egin dira zenbait baja estaltzeko.

Ordainsarien baldintzak 2004an sinatutako hitzarmen kolektibo batean finkatu ziren, egundaino luzatu dena; dena dela, zenbait kontu eguneratu egin dira Patronatuaaren Batzarrak egindako akordio batzuen ondorioz. Aurreikusita ez dauden kontuetarako, Nafarroako ostalaritzako hitzarmena aplikatzen da.

Langileen gastua murritztu egin zen ordainsariak murritztu zirelako 12/2010 Foru Legea aplikatuta; murrizketa horren zenbatekoa 6.110 eurokoa izan zen eta hasiera batean bideratu zen Udalak egoitzari berari egindako ekarpenak murriztera, eta, geroago, mailegu bat modu aurreratuan amortizatzeko erabili zuen.

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan, kontu-sail garrantzitsuena elikadura eta garbiketari buruzko zerbitzua kontratatzeko da; 196.699 euroko gastua izan zen 2010ean. Kontratu hori berrikusita, nabarmendu nahi dugu:

- 2004ko maiatzean esleitu zen, urtebeteko indarraldiarekin eta, gehienez, 4 urte arterainoko luzapenarekin. Urtero kontsumoko prezioen indizearekin eguneratuko da.
- 2008an, kudeatzaileak zerbitzua kontratatzeko expediente berri baten proposamena aurkeztu zuen, baina Patronatuko Batzordeak ez zuen onetsi; lortutako akordioaren ondorioz, negoziazioak ireki ziren aurreko esleipendunarekin, zerbitzua ematen jarrai zezan. Horretarako, esleipendun horrek proposamen ekonomiko bat aurkeztu zuen, Patronatuko Batzordeko lehendakariak baimendu zuena.
- Gaur egun, zerbitzua ematen jarraitzen du inolako kontratacio-expedienterik tramatatu gabe. Zerbitzu-ematearen kostuak, urteroko KPIarekin eguneratu eta gero, %20 inguru gainditzen du esleipenaren hasierako zenbatekoa.

Tasengatik izandako diru-sarreretan, bertan bizi direnek ordaindutako kuotak islatzen dira; transferentziengatik izandako diru-sarreretan islatzen dira, bai Udalak egindako ekarpenea (206.375 euro), bai Nafarroako Gobernuak itundutako 35 leku horien egonaldiak finantzatzeko egindakoa (252.674 euro).

Egoitzak 42 leku ditu, eta 2010eko abenduaren 31n, horietako 36 daude itunduta Nafarroako Gobernuarekin.

#### B) Udalaren Musika Eskola

Musika Eskolak 324.478 euroko hasierako/behin betiko aurrekontua du 2010ean. Aitortutako betebeharrok 289.842 eurokoak izan dira, eta %89ko gauzatzeporzentajea izan dute; aitortutako eskubideak, guztira, 290.074 eurokoak izan dira, eta %89ko betetze-maila izan dute.





2010eko ekitaldiaren aurrekontu-emaitza doitua 232 eurokoa izan da; diruzaintzako soberakin osoa eta gastu orokorretarakoa, zero eurokoa izan da.

Eskolak ez du inventariorik, eta bere balantzko ibilgetuan ez da islatzen Udalak jarduera garatzeko utzitako ondasunen balioa. Ez du epe luzerako zorrik.

Horrela bideratu eta finantzatu da Eskolak gastatutako 100 euroko kopuru batkoitzak:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantzazio-iturria	Zenbatekoa
Langileak	89	Tasak eta prezioak	30
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	10	Transferentziak	69
Inbertsioak	1	Beste diru-sarrera batzuk	1
	100		100

Egoitzan bezalaxe, Udalaren Osoko Bilkurak ez zituen onetsi 2009 eta 2010eko ekitaldietako Eskolako plantilla organikoak. Horren ondorioz, formalki indarrean jarraitzen du 2008ko plantillak.

Plantilla horrek, guztira, 14 lanpostu ditu, eta une honetan 3 leku modu finkoan daude okupatuta, eta 11 aldi baterako.

2010eko abenduan, guztira, 14 pertsona ari dira zerbitzuak ematen, honela banatuta:

- Zuzendari-irakasle bat, aldi baterako.
- 12 irakasle; hiru finko daude, eta gainerakoak, aldi baterako zenbait kontratu motaren bidez (obra, zerbitzu edo bitartekoak).
- Ofizial administrari bat, aldi baterako.

Horren ordainsarien baldintzak Nafarroako funtzionario publikoen baldintza orokoren arabera finkatzen dira.

Langileen gastua murritztu egin zen ordainsariak murritztu zirelako 12/2010 Foru Legea aplikatuta. Murrizketa horren zenbatekoa 4.786 eurokoa izan zen eta bideratu zen Udalak egindako ekarpenak murriztera, eta horrek zorra bat modu aurreratuan amortizatzeko erabili zuen.

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan izandako gastua %80 handitu da 2009koarekin alderatuz gero, Eskola eraikin berri batera eramatearen ondorioz. Lehen zegoen tokian, mantentze-lanetako eta horniduretako gastuak Udalaren aurrekontuen kargura ordaintzen ziren.

Tasengatik izandako diru-sarreretan, bertako ikasleek ordaindutako kuotak islatzen dira; transferentziengatik izandako diru-sarreretan islatzen dira, bai Udalak egindako ekarpenea (164.624 euro), bai Nafarroako Gobernuak egindakoa (35.093 euro), funtzionamenduko gastuak finantzatzeko.





### Laburbilduz, honako hau da, Eskolako finantzazioa:

Entitatea	Portzentajea
Familiak	30
Nafarroako Gobernua	12
Udala	57
Beste diru-sarrera batzuk	2
<b>Guztira</b>	<b>100</b>

2010-2011 ikasturtean ikasle kopurua handitu da aurreko ikasturtearekin alderatuta, 176 izatetik 192 izatera igaro dira.

2011-2012 ikasturterako, bi tarifa mota onetsi dira, ikasleek beren erroldalekuaren arabera ordain dezaten: Altsasukoentzat, aurreko ikasturteko tarifa bera mantentzen da, eta beste herri batzuetakoentzat, batez beste, %114 igo dira tasak. Egoerak horrela jarraituko du dagozkien udalekin finantzazio-hitzarmenik sinatzen ez den bitartean.

### Erakunde autonomoen gaineko gomendioak:


- *Bi erakunde autonomoetan jarraitutako langileen politika berrikustea segurtasun juridiko eta gardentasun handiagoa emateko; halaber, gai horretan indarrean dagoen araudia zorrotz betetzea.*
- *Langileen gorabehera administratibo eta ekonomiko guztiak behar bezala dokumentatzea eta artxibatzea.*
- *Egokia litzateke, Egoitzako Patronatuan, langileen ordainsariak eta lanbaldintzak islatzea hitzarmen kolektibo berri batean.*
- *Inbentario bat egitea erakunde autonomoen jabetza diren ondasun guztiak zehaztuta, bai eta jarduera garatzeko beste administrazio batzuetatik lagapen moduan jasotakoak zehaztuta ere.*
- *Indarrean dagoen araudia aplikatzea administrazioak egindako kontrato-prozesu guztietaan.*
- *Udalak bere erakunde autonomoenten jarduketen gainean egin beharreko kontrola, kontu-hartzea, aholkularitza eta tutoretza behar bezala ziurtatzen dituzten prozedurak diseinatzea.*

### VII.9. "ATABO ALTSASU, S.L." sozietatea

Altsasuko Udalak "Atabo Altsasu, S.L." sozietatearen akziodun bakarra; 2009ko abenduan eratu zen sozietatea, 3.300 euroko kapital soziala zuela. Laburbilduz, honako hau da bere xede soziala:

- a) Udal zerbitzuak hobeki ematea udalerriak garapen hobea izan dezan kultura-, kirol- eta gizarte-arloetan, bizi-kalitatea eta aberastasuna sortzeko ahalmena handitzeko.
- b) Altsasuko garapen ekonomikoa eta soziala sustatzea eta bultzatzea.





Hasiera batean honako hauek guztiak hartu zituen bere gain: kirol-instalazio batzuen kudeaketa, Zelandiko igerileku berriaren errentamendua, bai eta pilotalekuko tabernako lokalen eta Dantzalekuko igerilekuaren errentamendua ere.

Sozietate horrek 2010eko urtarrilean abiarazi zituen bere jarduerak.

Ondorengo tauletan erakusten dira sozietate horren balantzea eta emaitzen kontua, 2010eko ekitaldian:



**Egoera-balantza (Atabo Altsasu 2010)**

	<b>AKTIBOA</b>	(eurotan)
<b>Izendapena</b>	<b>2010</b>	<b>2009</b>
<b>A) AKTIBO EZ-ARRUNTA</b>	<b>766.857,51</b>	<b>0,00</b>
I. Ibilgetu ukiezina.	754.829,15	0,00
II Ibilgetu materiala	12.028,36	0,00
<b>B) AKTIBO ARRUNTA</b>	<b>12.491,26</b>	<b>3.300,00</b>
<b>III. Merkataritza-zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk</b>	<b>-29.443,25</b>	<b>0,00</b>
I. Bezeroak, salmentengatik eta zerbitzuak emateagatik.	-31.702,63	0,00
3. Beste zordun batzuk	2.259,38	0,00
<b>IV. Finantza-inbertsioak epe laburrera</b>	<b>11,54</b>	<b>0,00</b>
<b>VII. Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk.</b>	<b>41.922,97</b>	<b>3.300,00</b>
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>779.348,77</b>	<b>3.300,00</b>

	<b>PASIBOA</b>	(eurotan)
<b>Izendapena</b>	<b>2010</b>	<b>2009</b>
<b>A) ONDARE GARBIA</b>	<b>726.015,76</b>	<b>3.300,00</b>
<b>A-1) Berezko funtsak</b>	<b>-28.813,39</b>	<b>3.300,00</b>
I. Kapitala	3.300,00	3.300,00
I. Kapital eskrituratura	3.300,00	0,00
<b>VII. Ekitaldiaren emaitza</b>	<b>-32.113,39</b>	<b>0,00</b>
A-3) Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	754.829,15	0,00
<b>C) PASIBO ARRUNTA</b>	<b>53.333,01</b>	<b>0,00</b>
<b>III. Zorrak epe laburrera</b>	<b>286,65</b>	<b>0,00</b>
3. Beste zor batzuk epe laburrera	286,65	0,00
<b>V. Merkataritza hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk.</b>	<b>53.046,36</b>	<b>0,00</b>
I. Hornitzaleak	14.774,35	0,00
2. Beste hornitzale batzuk	38.272,01	0,00
<b>PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>779.348,77</b>	<b>3.300,00</b>





### Emaitzen kontua

	Zenbatekoa	Portzentajea	(eurotan)
<b>Atabo Altsasu 2010</b>			
I. Negozio-zifraren zenbateko garbia	520.824,34	100,00	
<b>Ustiapen-gastuak</b>	<b>552.945,96</b>	<b>106,17</b>	
4. Hornikuntzak	2.613,46	0,50	
5. Ustiapeneko beste diru-sarrera batzuk	-107.832,72	-20,70	
6. Langileriaren gastuak	303.069,51	58,19	
7. Ustiapeneko beste gastu batzuk	247.997,89	47,62	
8. Ibilgetuaren amortizazioa	109.593,86	21,04	
Ezohiko emaitzak	-2.496,04	0,48	
<b>A) USTIAPENEKO EMAITZA</b>	<b>-32.121,62</b>	<b>-6,17</b>	
<b>Finantza-gastuak</b>	<b>-8,23</b>	<b>0,00</b>	
13. Finantza-gastuak	10,59	0,00	
15. Truke-aldeak	-18,82	0,00	
<b>B) FINANTZA EMAITZA</b>	<b>8,23</b>	<b>0,00</b>	
<b>C) EMAITZA ZERGEN AURRETIK</b>	<b>-32.113,39</b>	<b>-6,17</b>	

Egindako lanari dagokionez, honako alderdi hauek nabarmentzen ditugu:

- Udalak gizarteari egindako mandatuaren helburua:

Kontratu publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearekin bat, Osoko Bilkurak onetsi zuen, 2009ko abenduan, Atabo SL udal sozietaete instrumentalaren aldeko mandatu bat; zenbait kirol-instalazio kudeatzea zen xedea, eta 8 urteko epea zuen, 2010eko urtarrilaren 1etik hasita.

Mandatu hori udal instalazio guztien arteko ondorengoa kirol-instalazioei buruzkoa da, aipatzen diren baldintzetan:

Altsasuko kirol-instalazioen katalogoa	Mandatua	Xedea
Udal igerilekuak	Zelandi guneko instalazioak, estalitako igerilekuak eta guzti	Kudeaketa integrala
Futbol-zelaia	Dantzalekuo futbol-zelaia, atletismo-pistak eta inguruko eremuak	Laguntza funtzionamenduan
Burunda pilotalekuak	Burunda pilotalekuo taberna / Burunda pilotalekuak	Kudeaketa integrala / Laguntza funtzionamenduan
El Lavadero udal gimnasioa	Ez dago barne	-
Dantzaleku kirolgunea	Udako igerilekuak eta Dantzaleku taberna	Kudeaketa integrala
Zelandi kirolgunea	Zelandi kiroldegia eta pilotalekuak	Laguntza funtzionamenduan





Mandatu horren baldintzakin bat, honako hauek guztiak sartzen dira **kudeaketa integralaren** kontzeptu horretan: instalazioen mantentze-lan eta funtzionamendu zuzenari lotutako lanak, horien garbiketa, behar diren baliabideak erabilgarri iza-tea, eta erabilerarengatik ezarritako zenbatekoak jasotzea. Atabo sozietateak 1.200 euroko kanona ordaintzen dio urtean Udalari zerbitzuaren errentamendu horrengatik, gehi etekinen %20ko kanon aldakor bat, horiek 30.000 eurotik gorakoak badira urtean.

Instalazioen **funtzionamenduan laguntzeak**, bestalde, honako hauek ditu barne: garbiketako zerbitzuak ematea, mantentze-lana, futbol-zelaiak prestatzea eta markatzea, atezaientza, erabiltzaileen kontrola eta zainketa, bezeroentzako arreta, baita erabilerarengatik ezarritako zenbatekoak jasotzea ere. Udalak 11.000 euro ordaintzen dizkio sozietateari hilean, hau da, 132.000 euro urtean.

Sozietateari dagokio urtero onestea eman beharreko jardueren eta zerbitzuen prezio-taula.

Udalak emandako informazioaren arabera, Udalak lehen instalazio horiek kudeatzten zituen enpresa pribatu batekin egindako kontratu mistoaren ezaugarri tekniko berberak ditu mandatuaren testuak. Kudeaketa integralaren eta funtzionamenduan laguntzearen arteko bereizketa justifikatzen da bereizten direlako diru-sarrerak sortzen dituzten jarduerak –eta, beraz, etekinak eman ditzaketenak–, eta doakoak diren edo diru-sarrera minimoak sortzen dituzten jarduerak. Gure iritziz, halere, bereizketa horrek zentzua izan balezake ere kanpo-kontratazio batean, honetan zaildu egiten du kudeaketa, bai Udalarena, bai sozietatearena.

*Gure gomendioa da aztertzea eraginkorragoa eta gardenagoa ote den sozietateak bere gain hartza udalaren kirol-instalazio guztien kudeaketa integrala; horretarako, bi alderdien betebehar eta eskubide guztiak behar bezala arautu beharko lirateke, eta sozietate horren bideragarritasun ekonomikoa bermatu beharko litzateke.*

Bestalde, dokumentuetan ez da ageri, ez Udalean, ez sozietatean, arrestiko instalazioen lagapena edo adskripzioa. Halaber, kontuen egoeretan ere ez da lagapen hori ageri.

*Gomendatzen dugu dokumentatzea sozietatearen alde egindako instalazioen lagapena, mandatuan ezarritako betekizunak eta baldintzak islatuta.*

- Sozietatearen antolakuntza-egitura diseinatzea.

Estatutuekin bat, honako hauek dira Atabo sozietatearen zuzendaritzako eta administrazioko organoak:

- a) Batzar nagusia.
- b) Administrazio-kontseilua eta lehendakaria.
- c) Kudeatzailea.

Kudeaketako alderdiei erreparatuta, Administrazio-kontseiluari dagozkio, bestek beste, honako eginkizun hauek guztiak:

- a) “*Gai eta negozio sozial guztien kudeaketa eramatea (barne zein kanpoko); kontabilitatea bere gain izatea legeriak exijitutako liburu guztiak izanda; kontuak formalizatzea eta*





*ematea, bai eta kanbio-letrak, gainerako bidalketa- eta trafiko-dokumentuak eta erresaka-kontuak ere.*

- b) *Kontu korronteak eta kreditu-kontuak eskatzea eta lortzea aurrezki kutxetan eta edozein banku, sozietate edo izaera pribatuko zein publikoko entitatetan eta horiek erabiltzea, txekeak, ordainketa-aginduak eta gainerako dokumentuak jaulkita.*
- c) *Zor, igorpen eta ordainketa-agindu mota guztiak kobratzea eta eraginkor bilakatzea, ordainagiriak eta ordainketa-gutunak emanda eta bermeak ezeztatuta, hipotekakoak eta pignoraziokoak barne; zorren ordainketa gisa edo ordainketarako onartzea edozein motatako ondareen lagapenak, higigarriak eta eskubide erreala barne, eta onartzea eskubideak eta aukerak;urreko, itsasoko edo aireko garraioak kontratatzeara; eta telegrafoak, merkantziak, gutunak, ziurtagiriak, bidalketak, telegramak eta, oro har, korrespondentzia jasotzea aduana, aireportu eta tren-geltokietatik, baita edozein biltegi edo gordetegi-tatik eta administrazioetatik ere.*
- d) *Sozietatearen memoria, inventarioa eta balantza idaztea eta prestatzea, galeren eta irabazien kontuan, funts berezien kokapenari buruzko erabakia hartuta”.*

Ez da inon ageri eginkizun horiek lehendakari eta/edo kudeatzailearen delegatzen direla; beraz, eguneko kudeaketari lotutako edozein egintza Administrazio Kontseilu horrek hartu beharko luke bere gain. Praktikan, ordea, arrestiko eginkizunak, logikoa denez, kudeatzaileak bere gain hartu eta gauzatzen ditu.

Era berean, ez da ageri kudeatzaileari dagozkion eginkizunen garapenik; bestalde, berak bakarrik agintzen ditu ordaintzeko eta kobratzeko aginduak.

*Gomendatzen dugu kontseiluko lehendakaritzan eta/edo gerentzian delegatza arrestiko eginkizun horiek; modu berean, gerentzia horrek egin beharreko lanak zehaztea eta esleitzea ere gomendatzen dugu, baita beharrezkoak diren barnekontroleko mekanismoak ezartzeara.*

Txosten hau idatzi den datan, kudeatzaileak uko egin dio bere lanpostuari.

- Instalazioak erabiltzeko eskubidea aktibatzea.

Mandatuaren xedea egituratzeak zaildu egiten du bere kontu-analisia; izan ere, bi motatako instalazioak daude aldi berean: instalazio batzuetan, sozietateak Udalerri ordaintzen dio errentamendu-kanon bat, eta, beste batzuetan, Udalerri sozietateari ordaintzen dio zenbateko bat laguntza-lan batzuen truke.

Honako hau izan da sozietateak aplikatutako kontu-tratamendua:

- a) Kudeaketa integral gisa esleitutako instalazioen erabileraaren balioa ibilgetu ukiezin gisa aktibatu da, baina soilik Zelandiko guneenak. Kontrakkontu gisa, diru-laguntzen, dohaintzen eta jasotako legatuen kontua aplikatu da sozietatearen ondare garbian.
- b) Erabileraaren balio hori kuantifikatzeko, kontuan hartu da gune horretan egindako inbertsioaren balio osoa (Udalerri arabera, 3.383.150 euro), bai eta horren elementu guztiak erabilgarri ekonomikoa eta mandatuaren bizi-iraupena ere. Horren emaitza den hasierako balioa 862.662 eurokoa da. Zenbateko bera esleitzen zaio jasotako diru-laguntzen arrestiko kontu horri.
- c) Urtero, sozietatearen irabazien eta galeren kontuan sartzen da, ondare garbiaren aldaketen egoeraren bitartez, balio hori mandatuaren indarraldiaren 8





urteetan zatitzearen emaitza den urteko kuota konstantea, hau da, 107.833 euro urtean.

- d) Azken zenbateko horrengatik, urtero doitzen dira ibilgetu ukiezinaren eta jasotako diru-laguntzen kontuen saldoak.

Azken batean, aurreko kontu-tratamendua ondare baten lagapen-operazio bat dagokio, baina kontraprestaziorik exijitu gabe; horrela, indarrean dagoen kontu-planak Udalak bere enpresaren alde emandako diru-laguntza ez-itzulgarria balitz bezala tratatzen du hori. Gerentziaren txosten baten arabera, tratamendu horrekin sozietatearen ondare garbia indartzen da, kapital sozial gutxi baita.

Gure iritziz, halere, operazioaren funts ekonomikoa errentamendu operatibo batena da; izan ere:

- a) Instalazio baten erabilera-eskubidea lagatzen da baina kontraprestazio bat izanda, Udalak kanon bat jasotzen baitu.
- b) Kolektiboaren onura diren fluxu ekonomiko-sozialak sortzen dituen jarduera bat denez, uste dugu Udalak ez duela egiten instalazioaren jabetzak berez dakartzan arrisku eta abantailen traspaso bat, nahiz eta etekin ekonomiko potentzialen traspasoa bai egiten duela.
- c) Bere kontu-tratamendu egokia da, besterik gabe, sozietatearen emaitzen kontuari dagokion ekitaldiko gastuarena.

Ez dugu ahaztu behar mandatuan “kudeaketa integral” gisa identifikatzen diren instalazioen zati bat baino ez dela aktibatu.

*Gomendatzen dugu sozietateak eragiketa horietan aplikatutako kontu-tratamendua berrikustea, finantza-egoerek behar bezala isla dezaten bere errealityea, bai ekonomiaren arloan, bai ondarearenean.*

• Sozietateak 2010ean garatutako jarduera ekonomiko-finantzarioaren gaineko iruzkinak.

2010eko ekitaldia da sozietate horrek bere jarduera garatzen duen lehenbizikoa; horren ondorioz, honako kontu hauek eragin dute horretan:

- a) Aurreko esleipendunak jarduera traspasatu izanaren arazoa.
- b) Urte horretako apirilean kontratatu zen kudeatzailea, eta plantilla ez zen finikatu urtearen bukaerara arte.
- c) Ekaina arte ez ziren instalatu kudeaketa egiteko behar diren aplikazio informatikoak.
- d) Aparteko gastu batzuk sortu ziren funtzionatzen hastearen ondorioz, emaitzetan eragina izan dutenak.
- e) Urtean zehar, zenbait zerbitzu azpikontratatu ziren.

2010ean zehar, kontu horiek guztiekin eragina izan dute jardueraren garapen normalean.





Aurkeztutako kontuetatik abiatuta, 663.285 euroko gastuak izan dira 2010ean, honela banatuta:

Gastuak	Portzentajea
Langileak	46
Ustiapeneko gastuak	38
Ibilgetuaren amortizazioa	16
Guztira	100

Langileen gastuak 13,5 langileri dagozkie, hori baita batez besteko kopurua. Urtearen bukaeran, 21 pertsonak osatzen dute sozietatearen plantilla, haietako 12k kontratu mugagabea dutela.

Ustiapeneko gastuei dagokienez, hornidurei eta mantentze-lanari dagozkie kontu-sail handienak.

Ibilgetuaren amortizazioa erabilera-eskubidearen (107.833 euro) urteko balio-galtzeari dagokio %98 batean; eskubide hori mandatuaren 8 urteetan zehar amortizatuko da.

Diru-sarrerak, guztira, 631.172 euro izan dira, eta honako taula honetan islatzen da horien izaera:

Diru-sarrerak	Portzentajea
Kirol-jarduerengatik	63
Kirol-instalazioetako laguntza-kontratua	20
Ustiapeneko beste diru-sarrera batzuk	17
Guztira	100

Kirol-jardueren diru-sarrerak instalazioak erabiltzeko abonu eta sarrerenak dira; laguntza-kontratua Udalak mandatuagatik jasotako diru-sarrerei dagokie.

Ustiapeneko beste diru-sarrera batzuen atalean islatzen da erabilera-eskubidearen balioaren zati alikuota ekitaldiko emaitzara izandako traspasoa.

Ekitaldiaren emaitza negatiboa izan da (32.113 euro).





Egoera-balantzeari buruz, honako hau adierazten dugu:

- a) Berezko funtsak negatiboak dira, nahiz eta aise orekatzen dira erabilera-eskubidea aktibatzetik eratorritako diru-laguntzen kontuarekin. Aktibazio hori gabe, sozietatea desegin beharko litzateke; salbuespen bakarra litzateke bere kapital sozial handitzea, horren kudeatzaileak eskatu duen bezala.
- b) Urtean zehar tentsio handia izan da bere diruzaintzan, eta horren ondorioz Udalak funtzionamendu-laguntzaren bigarren seihileko osoaren ordainketa aurreratu behar izan du, hilez hil egin beharrean, araututa dagoen bezala.
- c) Bezeroen saldoa negatiboa da, bere erregistroan egindako akats batzuen ondorioz.

Erabilera-eskubidearen aktibazioa kenduko bagenu, enpresaren ondare garbia negatiboa litzateke (29.333 euro); hartara, bere kasuan, sozietateei buruzko legerian aurreikusitako neurriak aplikatu beharko lirateke (sozietatea desegitea edo horren kapitala handitzea).

**Azken ondorio gisa**, uste dugu Udalak berriz ere planteamendu orokor bat egin behar duela ikusteko egokia ote den, gaur egungo baldintzakin, bere sozietate instrumentalari egindako mandatua. Gure iritziz, kirol-instalazioak udal-sozietatearen bidez zuzenean kudeatzeko modalitatea modu errazagoa da kudeaketa egiteko, egungo mandatua oso konplexua baita.





## VIII. 0 eta 3 urte bitartekoentzako Haur Hezkuntzako ikastetxea eraikitzeari buruzko iruzkinak

Parlamentuaren eskaera eta gure esku jarritako dokumentazioa aintzat hartuta, honako alderdi hauek nabarmendu nahi ditugu espediente horren gainean egindako berrikuspenari buruz:

1. 2000. urteko abenduan, Osoko Bilkurak akordio bat lortzen du udalerrian 0 eta 3 urte bitartekoentzako Haur Hezkuntzako ikastetxea sortzeko. Zenbait gorabeheraren ondoren, 2008ko abenduaren 26ko Osoko Bilkuran onesten da aurreko obren proiektua; bi jarduketa biltzen ditu: "Navarro Villoslada" egungo ikastetxeko beheko solairua egokitzea, eta bazegoen eraikina zabaltzea. Aurreko datak ikusita, Udalak uko egiten dio espresuki Hezkuntza Departamentuak hori finantzatzeko emandako diru-lagunza bati (2008ko aurrekontuen kargura).

